

Euskadi, auzolana



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

**Euskadin kirolarekin lotura duen
indarkeria modu partekatuan kudeatzeko talde-
lanean egindako diagnostikoa eta
proposamenak**

Egileak:

Aldaz Arregui, J. dk.
juan.aldaz@ehu.eus

Ispizua Uribarri, M. dk.
marian.ispizua@ehu.eus

Euskadi, auzolana, bien común



Aurkibidea

1. Sarrera	1
2. Proiektuaren xedea	1
3. Erabilitako metodologia	2
4. Kontzeptuen argibide laburra. Esparrua mugatu beharra	4
a. Zer da guretzat kirola?	4
b. Eta indarkeria?	5
c. Zein da indarkeriaren eta kirolaren arteko erlazioa?	9
d. Zergatik ematen du zigorzuzenbidea estadioaren ateetan gelditzen dela?	13
5. KLI (Kirolarekin Lotutako Indarkeria) aztertze eta modu partekatuan kudeatzeko proposamena, erantzukidetasun sistemikoaren ikuspegitik	14
6.	
a. KLIren kudeaketa partekatuen aldiak	16
b. KLI egoerak sorrarazten dituzten espazioak al dira kirol-norgehiagokak?	19
c. Aldaketa-eragileak ala KLIren ugalketa eta hedapena?	21
7. Kiroleko indarkeriaren arazoari buruz elkarrekin sortutako analisi deskribatzailea eta partziala	23
8. Jardunbide egokiak	45

9. Gomendioak	48
10. Bibliografia-erreferentziak	51

1. Sarrera

Hemen aurkezten dugun lanak Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzari egindako eskaera du abiapuntu, eta behar diren ekintzak gauzatzea bilatzen du Eusko Legebiltzarrak 2018ko martxoaren 16an onartutako mozioari erantzuna emateko. Mozio horretan eskaera egiten zitzaion Eusko Jaurlaritzari, Kirolaren Euskal Eskolaren bitartez, jardunaldi bat antola zezan kiroleko indarkeriaren aurkako borroka gai hartuta, bai eta etorkizunari begira hartu beharreko neurriak jasoko dituen txosten bat egin zezan ere.

2. Proiektuaren xedea

Kirolaren inguruko indarkeriak Eusko Jaurlaritzari sortzen dion kezka kontuan harturik eta, are gehiago, San Mames estadioaren aurreko zabaldian Athleticek eta Moskuko Spartakentzako partida hasi baino lehen jazotako gertakari tragikoak ikusita, non Inocencio Alonso Garcia ertzaina hilik gertatu baitzen, erabat beharrezkoa da arazo konplexu horri modu integralean aurre egitea.

Lehenengo urrats modura, Eusko Legebiltzarrak onartutako mozioa aintzat harturik, proiektu honen lehenengo xedea abiapuntu bat finkatzea da kiroleko indarkeriaren aurkako borrokan aurrera egiteko.

Buruan xede orokor hori hartuta, bi dira proiektuaren helburu espezifikoak:

- a. Batetik, kirolarekin lotura duen indarkeriaren diagnostiko bat egitea (futbolaren kasuan azentu berezia jarri), arazoaren dimentsioak zehazten saiatuz, hala profesional nola amateur mailan, kontzeptu-esparru argitzaile bat garatuz eta jardunbide egokien katalogo bat landuz eta prestatuz, kirolarekin lotura duen indarkeriaren kontra borrokatzeko, eta
- b. Bestetik, kirolarekin lotutako indarkeriaren aurka borrokatzeko gomendioak proposatzea.

Era berean, azpimarratzekoa da lan honen erantzukidetasun-zentzua, hain zuzen ere, eragile bakoitzak, bere aukera eta eskumenen arabera, kiroleko indarkeriaren fenomenoan zer nolako erantzukizuna duen pentsatzea bilatzen baitu, eta, jakina, zer neurritako ekarpenak egin ditzakeen kirolaren inguruko indarkeriaren aurkako borrokan.

3. Erabilitako metodologia

Lan honetan erabilitako metodologiak, enkarguaren ezaugarriak kontuan izanik, politika publikoen ebaluazio-ikerketa hartu du oinarritzat, eta ondorengo ikuspegi hauen balioak partekatzen ditu: emaitzen erabilera (Patton, 2008)¹, erantzuleak (Stake, 2004)², parte-hartzaileak (Guijt eta Gaventa, 1998)³ eta estimaziokoak (Preskill eta Catsambas, 2006)⁴.

Orientazio hori buruan dela, eta Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren aitzindaritzapean, prozesuko partaide egin dira *lehen mailako stakeholder* (Alkin-en definizioaren arabera, 2011)⁵ jotzen diren gizarte-eragileak, bai diagnostikoa eta bai kirolaren inguruko indarkeriaren aurka borrokatzeko gomendioak egiteko orduan erantzukide izan daitezen, modu horretan, ikaskuntza posible egiteko eta kirolaren eta kirolaren inguruan gertatzen den indarkeriaren ko-gestioan⁶ inplikaturik dauden aktoreek (Preskill eta Torres, 1999)⁷ informazioan oinarritutako erabakiak har ditzaten. Argi utzi nahi da aukera horrek ez diela ordezkagarritasun-irizpideei erantzuten, baizik eta irizpide estrategikoak hartzen direla kontuan, beraz, oso gogoan daukagu etorkizuneko beste *lehen mailako stakeholder* batzuen aktibazioan aurrera egiteko interesa, kiroleko indarkeriaren – zentzu zabalean ulertuta – aurkako borrokan behar diren ekintzak elkarrekin sortzeko.

Edonola ere, hemen aurkezten dugun lan honetan, honako hauek izan dira prozesuan parte hartu duten eragileak:

¹Patton, M.Q (2008). *Utilization-Focused Evaluation. 4th Edition*. Thousand Oaks (California): Sage Publications.

²Stake, R.E (2004). *Standard-Based & Responsive Evaluation*. Thousand Oaks (California): Sage Publications.

³Guijt, I. and J. Gaventa (1998). *Participatory Monitoring and Evaluation: Learning from Change*. IDS Policy Briefing. Brighton, UK, University of Sussex. <http://www.ids.ac.uk/files/dmfile/PB12.pdf>

⁴ Preskill H, y Catsambas T T (2006), *Reframing Evaluation through Appreciative Inquiry*. Thousand Oaks, California. Sage Publications

⁵ Garrantzitsua bada ere beste *stakeholder* batzuen inputak edukitzea, lehen mailakoak diogunean **erabakiak hartzen dituzten** eta emaitzen erabileran interesa duten pertsonen ari gara, ez taldeez.

⁶ Kudeaketa partekatuen terminoa hautatu dugu, eta ez prebentzioarena, iruditzen zaigulako lehenengoak, prebentzioaren ideia barnean hartzeaz gain, horrekin batera, indarkeria-adierazpen guztien aurrean ekiteko premia eta eragileen artean modu kooperatiboan eta koordinatuan jarduteko beharra ere jasotzen dituela.


⁷Preskill, H. eta Torres, R.T. (1999). *Evaluative Inquiry for Learning in Organizations*. Thousand Oaks, CA: Sage

1. taula: Taldeetan parte hartzen duten eragileak

A 1 TALDEA: Kirol profesionala: Eusko Jaurlaritza	- Eusko Jaurlaritzako Kiroletako Zuzendaritza: Kirol Justiziako Batzordea eta Kiroleko Indarkeriaren Aurkako Batzordea (Kirolalde) - Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritza - Segurtasun Zuzendaritza / Ertzaintza
A 2 TALDEA: Kirol profesionala: Kirol-klubak eta beste eragile batzuk	- Futbol profesionaleko klubetako segurtasun-ordezkariek - Segurtasun Saila / Ertzaintza - Eusko Jaurlaritzako Kiroletako Zuzendaritza
B TALDEA: Oinarriko kirola, eskolakoa eta amateurra	- Eusko Jaurlaritzako Kiroletako Zuzendaritza 3 Aldundietako Kirol Zuzendaritzak - Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritza - Gesto Deportivoa elkarteak - Euskadiko Futbol Federakundea - Futboleko Arbitroen Euskal Batzordea - Segurtasun Zuzendaritza / Ertzaintza - Itunpeko ikastetxeen ordezkariek

Aurreko epigrafean adierazi dugun bezala, bi dira proiektu honen helburu nagusiak: diagnostiko bat egitea eta gomendio-plan bat diseinatzea. Ekintza horiek paraleloan eta dinamika desberdinekin eraman dira aurrera, azkenean lan-jardunaldi batean amaitzeko xedearekin, bertan diagnostiko bat kontrastatu/partekatu eta ekintza-plan bateratu bat prestatzeko. Grafikoki, hau izango da lan-dinamika:

1. irudia: Proiektuko eginbide nagusien fluxugrama laburtua



Halaber, KLiren kudeaketa partekatua xede dugula, sistemikoa deitu diogun proposamena lantzeari eta prestatzeari begira, oso gogoan izan dugu *kriminologiak* helburu horretarako egin ditzakeen ekarpenak.

Horrela bada, aurkezten dugun lan honen orientazioa argitu ondoren, igaro gaitezen orain bai kirolaren eta bai indarkeriaren –eta bien arteko erlazioaren– kontzeptuei lan honetan ematen zaien esanahiaren inguruko argibideak ematera.

4. Kontzeptuen argibide laburra. Esparrua mugatu beharra

Elementu erabakigarria iruditzen zaigu, kirolaren inguruko indarkeriaren aurkako borrokari heltzeko orduan, zehatz-mehatz argitzea, lan honen esparruan, zertaz ari garen kontzeptu horiez mintzatzen ari garenean. Definizioak askotarikoak dira eta ez dago adostasun absolutu bat kontzeptu horiei buruz, ez-eta indarkeriaren eta kirolaren arteko harreman espezifikoari buruz ere.

a. Zer da guretzat kirola?

Irudi balezake ere ez dagoela inolako zalantzarik kirolaren esanahiaren inguruan, kontua da, gaur egun, oraindik, ez dugula unibertsalki onartzen den definizio bat aurkitzen (ALDAZ, 2011). Onarpen zabalena duen definizioa, beharbada, EUROPAKO KONTSEILUAK (2007: 2) kirolari buruzko *liburu zurian* proposatutakoa da, honela definitzen baitu kirola:

Parte hartze antolatuen –edo antolatu gabearen– bitartez egiten den edozein jarduera fisiko, sasoi fisiko eta psikikoa adierazi edo hobetzeko, harreman sozialak garatzeko, edo maila guztietako lehiaketetan emaitzak lortzeko helburuarekin

Ikusten den bezala, kirolaren definizio sobera laxoa da aurreko hori, eta erreferentzia-esparru orokor egokia definitzen badu ere, ez zaigu eraginkorra iruditzen lan honen helbururako; izan ere, egin zaigun enkarguaren ezaugarriak kontuan hartuta, **kirolaz** ari garenean, izatez **kirol-topaketez** ari gara eta, bereziki, izaera **kolektiboa** eta taldeen arteko **ukitze fisikoa** lotuta daramaten kirol-topaketa edo partidez, **lehiaketa baten barruan, eta nolabaiteko ikuskizun izaera ere tartean dela**. Gure testuingurura etorrita, bereziki **futbol** partidez ari gara, eta haien atzetik datoz, urrun samarretik, *saskibaloikoak*⁸. Horrela bada, esandako zentzu hori ematen diogu kirolari lan honetan.

⁸ 1.027.907 lizentzia futboleak; aldiz, 354.328 saskibaloian, 2017ari buruz Kirol Kontseilu Gorenak emandako datuen arabera (iturria: http://www.csd.gob.es/csd/estaticos/asoc-fed/licencias_y_clubes_2017.pdf)

b. Eta indarkeria?

Gauza bera gertatzen da **indarkeriaren** definizioarekin, horretan ere ez baitago adostasun zabala biltzen duen definizio bakar bat. Horrela, «espektro» zabal samarreko definizioak topatzen ditugu, berorietan, indarkeriaren adierazpen mingarrienak eta zuzenekoak aipatzeaz gainera (fisikoa bereziki, baina psikikoa ere bai, hemen ere ez dago adostasunik), egitura- eta kultura-elementuak ere hartzen baitira kontuan [agian GALTUNG-en ekarpenak (in MATTHEWS, C.R., 2017) dira zentzu horretan ezagunenak]. Indarkeria estrukturalari eta kulturalari buruzko adibide argiak ditugu (betiere, kirolaren kasuan zentratutik, gorago mugatu dugun bezala); hala, indarkeria estrukturalaz ari garela, adibidez, futbol-partiden prezioak aipa ditzakegu –ez dira ekonomikoki bereziki irisgarriak–, eta indarkeria kulturalari dagokionez, kirolaren estaldura mediatikoa aztertzen badugu, ikusiko dugu, modu ia hegemonikoan, gizonen zuzeneko futbolak gailentzen dela beste ororen gainetik.

Lan honen helbururako, GALTUNGek planteatzen duen kontzeptu-esparruak (in MATTHEWS, C.R., 2017) indarkeriaren erro soziokultural sakonak nabarmentzen baditu ere, gure kasuan, indarkeriaren zuzeneko adierazpenetan zentratuko gara.

Ildo horretan, nabarmentzekoa da Osasunaren Mundu Erakundeak (OME, 2002:5) egiten duen indarkeriaren definizioa:

Indar fisikoa edo boterea nahita erabiltzea, mehatxu gisa edo benetan, norberaren aurka, beste pertsona baten aurka, edo talde baten aurka, lesioak, heriotza, kalte psikologikoak, garapenaren nahasmenduak edo gabetzeak eraginez, edo eragiteko aukera ugari sortuz.

Aipatutako definizioaren aitortza akademikoa kontuan harturik eta aztertu diren lanetan onartzen eta erabiltzen denez, geure egiten dugu, behin-behineko izaeraz bada ere.

Kontuan hartu beharreko beste elementu bat, indarkeria definitzeko zailtasunaren parte dena, indarkeria horren kausak zehazteko konplexutasunetik dator. Hala eta guztiz ere, zailtasun horiek eta indarkeriaren etiologiari buruzko azterlanen askotarikotasuna gorabehera, ondorengo hauek onartuta daudela dirudi, Eller-ek laburbiltzen duen bezala (2006:31, in YOUNG, 2012: 2):

Bi ikuspegi orokorrenak dira «barnekoa» eta «kanpoko», alegia, indarkeriaren kausa edo iturria norbanakoaren «barnean» dagoen (bere buruan edo «gogoan», nortasunean edo geneetan) edota norbanakoaren «kanpoan» (bere gizarte-egoeran, balioetan edo jarduten duen egituretan). Bi ikuspegi orokor horiek, gutxi gorabehera, biologiarekin eta psikologiarekin lotu daitezke, alde batetik, eta soziologiarekin eta antropologiarekin, bestetik.

Ildo horretan, Hernandezek eta beste batzuek (2003: 186) hiru multzotan sailkatzen dituzte indarkeriaren etiologiari buruzko teoriak:

- a. Teoria *innatista*, *biologiko* eta *psiko-biologikoak*. Gizabanakoaren jokabidean zentratzen dute indarkeriaren azalpena; uste dute norbanakoan (eta ez gizartean) «gaizki» funtzionatzen duen zerbaiten sintoma dela indarkeria;
- b. Teoria *psiko-sozialak* aldeztzen dituztenen iritzian indarkeriaren jatorria ez legoke gizabanakoetan, isolaturik, baizik eta norbanakoek taldean dituzten interakzioetan. Hau da, gizakia izaki sozial bat den neurrian, ulertzen da bai pertsona horien adimena eta bai nortasuna beste pertsonetikiko interakzio sozialaren bitartez eraiki direla.
- c. Azkenik, indarkeriari buruzko teoria *soziologikoak* erakunde sozialek jokatzeko duten papera azpimarratzen dute. Beraz, testuinguru soziokulturalean jartzen dute arreta eta gizarteak berak sortzen dituen – eta indarkeria erabiltzen duten– mekanismoak nabarmentzen dituzte.

YOUNGek (2012) arrazoi biologikoak eta psikologikoak biltzen ditu, alde batetik, eta soziologikoak bestetik, eta hiru argudio giltzarritan sintetizatzen ditu teoria esplikatzaile nagusietako bakoitza.

Ikuspegi biologiko eta psikologikotik honako hauek deskribatzen ditu (**2. taula** ondoren):

2. taula: Ikuspegi biologikoak eta psikologikoak erasoaz eta indarkeriaz

<i>Ikuspegia</i>	<i>Hiru argudio giltzarri</i>	
Senaren teoria	1	Gizakiak oldarkorrak dira naturalki; erasotzea jaiotzetikoa bulkada biologikoa da
	2	Gizakiei erasoak inhibitzeko mekanismo naturala falta zaie.
	3	Itxura fisikotik estrapola daiteke oldarkortasunerako joera.
Frustrazio-erasoaren hipotesia	1	Erasoa frustrazioaren ondorioa da.
	2	Erasorako probabilitatea eta haren maila erlazionatuta daude frustrazio motarekin eta mailarekin.
	3	Behin erasoaren iturria –frustrazioa, alegia– indargabetu denean, erasoak berez desagertuko da
Eraso zitala eta	1	Gizakiek helburu espezifikoak erdiesteko erabiltzen dute erasoak.

instrumentala	2	Eraso zitala (edo eraso «sumindua») min egiteko intentzioz erabiltzen da.
	3	Eraso instrumentala estrategikoki erabiltzen da gizabanakoari edo xedeari kalte egitea ez den beste helburu bat lortzeko.
Katarsia	1	Eguneroko bizimoduan, gizakiek frustrazioak metatzen dituzte.
	2	Gizarteek badituzte beren kanalak, eta berorietatik purga daiteke frustrazioa modu arduratsuan.
	3	Sozialki ametitutako «balbula segururik» ezean, erasoak okerrera egin dezake eta modu arriskutsuagoan adieraz daiteke
Inbertsioaren teoria	1	Gizakiaren portaera lau egoera edo motibazio-baldintzaz osatzen da: teliko-paratelikoa, konformismo-negatibismoa, nagusitasun-sinpatia eta autiko-aloikoa.
	2	Frustrazioak eta asetasunak erabakiko dute erantzuna oldarkorra edo pasiboa izango den.
	3	Lau egoera «meta-motibazionalak» aldi berean gerta daitezke, bai eta batetik bestera «aldatu» ere, kitzikapenaren arabera

Ikuspegi soziologiko batetik, honako hauek nabarmentzen dira (**3. taula** ondoren):

3. taula. Ikuspegi soziologikoak erasoaz eta indarkeriaz

<i>Ikuspegia</i>	<i>Hiru argudio giltzarri</i>	
Ikaskuntza sozialaren teoria	1	Erasoa ez da seinala biologikoetatik eratortzen, baizik eta gainerakoen portaera begiestetik eta modelatzetik.
	2	Begiespenaren bitartez, gizakiek ikasten dute erasoak erabili egin daitekeela rol jakin batzuk jokatzeko, norberaren identitatea eraiki eta berresteko eta sariak sustatzeko.
	3	Erasoak ez du balio gizartearen «balbula seguru» edo katarsi-funtzioak betetzeko.
Neutralizazio teknikak	1	Teoria soziologikoak ez ditu krimenaren eta indarkeriaren arrazoi estrukturalak soilik esplikatzen behar, bai eta arrazoi horiek norbanakoen zer egintzetan islatzen diren erakutsi ere.
	2	Portaera soziala justifikatzen ikastea portatzen ikastea bera bezain garrantzitsua da.
	3	Delituak egiten dituztenek eragindako lesioetan edo biktimizazioan duten erantzukizuna uka dezakete, zigortuak kondenatu edota

leialtasun altuagoetara jo dezakete.

Indarkeriaren azpikultura	1 Gizarteen barruan, beste azpitalde batzuk egoten dira (azpikulturak) beren arau eta balio propioen arabera gobernatzen direnak. 2 Indarkeriaren aldeko azpikulturak gizarte orokorrean edota lantoki espezifikotan gara daitezke. 3 Azpikulturako erregelak, arauak eta balioak, testuinguru azpikulturalaren barrukoak izanik, berorretara mugatzen dira.
Soziologia figuratiboa («prozesua»)	1 Egintza soziala gizabanakoen eta taldeen artean boterez blaitutako elkarren mendeko kate konplexuz osatutako sareen emaitza izaten da. 2 Gizarteek, eskuarki, denboraren joanean, baketzeko joera izan ohi dutenez, eraso modu batzuk «kitzikapen bilaketa» gisa uler daitezke «erlatiboki kitzikagarritasun gutxi duten gizarteetan». 3 Kirola, modu horretan, sozialki onargarria den foro bihurtzen da, emozioen «deskontrol kontrolaturako».
Biktimologia	1 Biktimizazioa ez dute soilik aktore indibidualek eragiten, bai eta instituzioek ere, lantokiak eta gobernuak barne direla. 2 Gizarteak tolerantzia handia erakusten du biktimizazioarekiko erakunde sozial autonomoetan gertatzen denean, hala nola etxean, lanean edo kirolean. 3 Atleta profesionalak «langile» modura hartu behar lirateke, eta beste lanpostu batzuetan eskaintzen diren legezko babesak eta onurak eman behar zaizkie
Kirol-etika	1 Atletak eta atletak epaitzen dituztenek (adibidez, entrenatzaileak, administratzaileak, babesleak eta zaleak) kiroleko zeregin-konpromisoa errespetatzen eta saritzen dute. 2 Nortasuna eta estatusa honako hauekin lotzen dira: sakrifikatzearekin, gailentzeko borrokatzearekin, arriskuak hartzearekin eta garaipenaren bila mugarik ez onartzearekin. 3 Kirol-etikarekiko adostasun handiegia atleten arteko antsietate- eta zalantza-sentimendu orokortu batetik eratortzen da

Sailkapen labur honetatik ateratzen den ondorio nagusietako bat da, dirudienez, eta zalantzarik gabe, indarkeriaren jatorriaz hitz egiteko orduan, beharrezkoa dela haren kausa anitzeko etiologia kontuan hartzea.

c. Zein da indarkeriaren eta kirolaren arteko erlazioa?

Kirolaren eta indarkeriaren arteko erlazioari ekiteko, beharrezkoa da beste argibide batzuk ematea, lan honetan ematen zaion zentzua mugatze aldera. Batez ere, zeren, banaka hartuta biek ere polisemia nabarmena dutenez, baita erabilera akademikoan ere, biak eskutik doazenean, are gehiago korapilatzen baita kontua. Bi kontzeptuen fusioaren inguruko «mitologia» (COALTER, 2007) mutur positibo baten eta negatibo baten artean mugituko litzateke.

Mutur positiboan, kirolaren ideia beretik eratorritako hitza dugu: *kirol-legea*; hots, "Kirolari baten prozedura zintzo, zuzen eta egokia" edo "Kirola egitean errespetatu beharreko printzipio etikoen multzoa: joko-arauak betetzea, aurkariekin zuzentasunez jokatzeko, aukera-berdintasuna bermatzea, kosta ahala kosta edozein bitarteko erabiliz irabazteko asmoa ez izatea, eta irabaztean nahiz galtzean jarrera duina azaltzea" Euskalterm hiztegi terminologikoak ematen dituen bi definizioen arabera.

Mutur negatiboari dagokionez, BROHM eta PERELMANen (2018 eta beste batzuk) lanak aipa genitzake, beroriek baitira, muturreko perspektiba batetik, kirola – hertsatze-tresna gisa – indarkeriarekin identifikatzen dutenen ordezkari nagusiak.

Errealitatea, kirolaren eta indarkeriaren arteko balizko erlazioaren azterketa eraikitzaile bat egin nahi baldin bada behintzat, urruti dago aipatutako bi muturretatik.

Hizpide dugun arloa arautzeko eta argitzeko ahaleginetako batek **–19/2007 LEGEA, uztailearen 11koa**, kiroleko indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta tolerantzia-ezaren aurkakoa–, bere hitzaurrean, kirolaren eta indarkeriaren arteko erlazioa argitu ordez, nahasmendu terminologikoa berritzen duela dirudi, honelakoak esaten baititu: «Errotik bateraezinak dira kirola eta indarkeria, edozein indarkeria mota, hitzezkoa barne, edo beste sotilago hura, amarruan, iruzurrean eta joko garbiaren mespretxuan oinarritzen dena (...)», baina dio, era berean, «indarkeria inguruneari indarra aplikatzea» denez, «(...)», kirolak beti eta hainbat neurritan daramala indarkeria, indarra erabiltzen duen heinean, zeina elementuen aurka (lurra, ura eta airea), edota kirolaren esparruan bere arerio bihurtzen diren pertsonen aurka aplikatzen baita».

Argi dago, kontzeptuak nahastea, bai kirolaren kontzeptua eta bai indarkeriarena, kontzeptu horiek behar bezala mugatu ezaren emaitza eta ondorioa da. Bai aipatutako erreferentziako legea eta izaera zientifikoa edota arauemailea duten beste lan asko, esplizituki adierazi gabe, **kirol-topaketez** ari dira, izaera **kolektiboa** eta taldeen arteko **ukitze fisikoa** praktikatzen duten partidez, **lehiaketa baten barruan**, eta **nolabaiteko ikuskizun bat** tartean dela. Argibide hori erabakigarria da gure iritzian eta, zorionez, jasota dago bai **otsailearen 26ko 203/2010 Errege Dekretuan** –zeinak kiroleko indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta tolerantzia-eza prebenitzeko Erregelamendua onartzen baitu– eta bai 2016ko uztailean Europako Kontseiluak futbol-partidetako eta beste kirol-ekitaldi batzuetako babesaren, segurtasunaren eta zerbitzuaren ikuspegiari buruz onartutako Hitzarmenean.

Puntu honetara iritsita, indarkeriaren eta kirolaren arteko erlazioan sakontzen badugu orain arte argitutako terminoetan, zilegi da mahai gainean jartzea indarkeriak partidan bertan betetzen duen rola (kirolarien eta zuzenean inplikaturako aktoreen artean: entrenatzaileak eta kirol-langileen taldea, arbitroak eta klubetako zuzendari eta kudeatzaileak), ikusleen artekoa eta, jakina, bien arteko erlazioa. Hau da, geure buruari galdetzea, bai testuinguru batean eta bai bestean, zer nolako indarkeria-dinamika partikularrak dituzten –baldin badituzte– eta nola eragiten dioten elkarri, gaur egun ikuskizun (kirol-ikuskizun) jotzen ditugunen ekosistema moduko bat sortzeraino, beren irizpide estetiko eta etikoekin (ALDAZ, 2009).

Erlazio hori, gainera, handitu egin behar genuke zentzu diakronikoan, eta geure buruari galdetu ea zer erlazio dagoen kirol-ikuskizunetako indarkeria-adierazpenen eta beheko mailetako partiden artean, eta sakontzen saiatu behar genuke egon daitezkeen kausa eta ondorioetan, eraiki ahal izateko zer iruditzen zaigun onargarria eta zer ez, indarkeria-adierazpenei dagokienez, kirol-topaketa baten barruan.


Balizko ontzi komunikatuak baliteke uste baino urrunago iristea, eta galde geniezaioke geure buruari ea ukipeneko kirolak –futbola eta saskibaloia barne– praktikatzen dituztenek indarkeria-jarrerarik baduten edo ez bizitzako gainerako alderdietan, baina hori lan honen asmoetatik harago doa (horretan sakontzeko COAKLEY, 2017; eta MIRACLE eta ROGER, 1994).

Edonola ere, eta interakzio hori mugatzeko zailtasunak ikusirik, interesgarria iruditzen zaigu YOUNGen (2012: 15) proposamena azaltzea –hori ere OMEren definizioan oinarritzen da–, indarkeriaren eta kirolaren arteko erlazio konplexu hori ebazteko asmoarekin eta **kirolarekin lotutako indarkeriaz** (aurrerantzean KLI) hurrengo termino hauetan mintzatzeko:

1. indarkeria fisikoa erabiltzen duten zuzeneko egintzak, joko-arauen barruan edo kanpoan gertatzen direnak eta pertsona, animalia edo jabetzei lesioak eragiten dizkietenak; eta
2. kirolaren testuinguruan gauzatutako egite kaltegarriak edo potentzialki kaltegarriak izan daitezkeenak eta mehatxatzen edo lesioak eragiten dituztenak edo giza justizia eta askatasun zibilak bortxatzen dituztenak.

Perspektiba horrek indarkeriaren eta kirolaren arteko interakzio konplexua behatzea ahalbidetzen digu, eta fokua non jartzen ari garen kontzientzia hartzea.

2. irudia: KLiren gurpila (YOUNG, 2012: 97). Itzulpena gurea da.



Horrela bada, gure lana, KLIren errealitate konplexu hori aitortzen badu ere, eragileen analisisian eta KLI ulertzeko eta modu partekatutak kudeatzeko dimentsio kritiko desberdinetan zentratzen da, izaera **kolektiboa** eta taldeen arteko **ukitze fisikoa** praktikatzen duten **kirol-topaketetan**, **lehiaketa baten barruan**, eta **nolabaiteko ikuskizun bat** tartean dela.

YOUNGek (2012) planteatutako ikuspegia gure egiten badugu ere, lan honetan, *Kiroleko indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta tolerantzia-ezaren aurkako **uztailaren 11ko 19/2007 LEGEaren 2. artikuluko lehen eta bigarren apartatueta***⁹ tipifikatzen direnak soilik hartuko ditugu indarkeria-egintza gisa.

⁹2. artikulua. Definizioak.

Lege honen ondorioetarako, gure ordenamenduko beste lege-testu batzuetan jasotako definizioen eta artikuluko 1. eta 2. apartatueta deskribatutako jokabideak lege penaletan tipifikatutako delitu edo arau-hauste izateko aukeraren kaltetan izan gabe, honela ulertuko dira:

1. Kirolean bortizkeria sustatzen duten egintza edo jokabide bortitzak: **a)** Liskar, errieta, borroka edo desordena publikoetan aktiboki parte hartzea kirol-esparruetan, haien inguruetan edo haietara joateko antolatutako garraibideetan, jokabide horiek gauzatuko den, gauzatzen ari den edo gauzatu den kirol-ekitaldi batekin

Artikulu horrek berak gure arreta hartzen du, gogorarazten baitu portaera horiek delituak izan daitezkeela eta, beraz, zigor kodeak zigortu ditzakeela. Aipatutako hori garrantzi handikoa da, portaera berdinak zigortzeko orduan, kirol-testuinguruetan eta gizartean, oro har, dagoen sentiberatasun desberdinean sakontzeko.

d. Zergatik ematen du zigor-zuzenbidea estadioaren ateetan gelditzen dela?

Aipatutako legeak indarkeriaren kategoria berriak ezartzen ditu kirol-testuingururako, baina argitu eta/edo azpimarratu gabe nola aurre egin aipatutako

dutenean zerikusia. **b)** Kirol-esparruetan, haien inguruetan edo haietara joateko garraiobideetan pankartak, ikurrak, enblema edo idazkunak erakustea, edukiagatik edo zein egoeratan erakutsi edo erabili diren kontuan hartuta, nolabait jokabide bortitzak edo terroristak gauzatzera bultzatzen edo sustatzen badute, edo horretan laguntzen badute, edo kirol-ikuskizunetan parte hartzen duten pertsonen aurkako mespretxu-egintza nabarmenak badira. **c)** Kirol-esparruetan, haien inguruetan edo haietara joateko antolatutako garraiobideetan bortizkeria, terrorismoa edo erasoak sustatzen dituzten kantak kantatzea. Orobat, kirol-ikuskizunean parte hartzen duten pertsonen kontrako mespretxu-egintza nabarmenak diren kantak kantatzea. **d)** Jokalekuetan baimenik gabe sartzea. **e)** Kirol-lehiaketa edo -ikuskizun baten kariaz, kirol-esparruetan, haien inguruetan edo kirol-esparru horietara joateko balia daitezkeen garraiobideetan, ekitaldi horietan parte hartzen dutenen edo horietara joaten direnen kontrako bortizkeria sustatzen duten adierazpenak edo mehatxuak egitea, edo era horretako informazioak zabaltzea; edo, adierazpen horien bitartez, etsaitasuneko edo kirol-legearen kontrako giro bat, edo kirol-ekitaldi edo -lehiaketetan parte hartzen dutenen arteko edo bertara joaten direnen arteko liskarrak sustatzeko giro bat sortzen laguntzea nabarmenki. **f)** Bortizkeria sustatzen duten edo jokabide bortitz edo terroristak laguntzen edo sustatzen dituzten pertsonen edo taldeen jardunari laguntzen dioten bitarteko tekniko, ekonomiko, material, informatiko edo teknologikoak ematea, edo jokabide horiek gauzatzeko erabiltzen diren euskarri digitalak sortu, hedatu edo erabiltzea.

2. Kiroleko egintza arrazistak, xenofoboak edo intoleranteak: **a)** Pertsona fisiko edo juridiko batek, ekintza batzuetan, kirol-proba, -lehiaketa edo -ikuskizun bat gauzatzen ari dela edo laster gauzatzera doala, adierazpenak egitea edo informazioa hedatzea, jendaurrean edo hedapen handia emateko asmoarekin, eta, ekintza horien bidez, pertsona bat edo pertsona-talde bat mehatxatzea, iraintzea edo umiliatzea bere (edo beren) arraza-, etnia-, geografia- edo gizarte-jatorriagatik, edo bere (edo beren) erlijio, sinesmen, desgaitasun, adin edo joera sexualagatik. **b)** Jazarpena dakarten ekintzak gauzatzeko, egiten ari den edo laster egiteko den kirol-proba, -lehiaketa edo -ikuskizun baten kariaz edo kirol-esparruetan, hain inguruetan edo haietara joateko balia daitezkeen garraiobide publikoetan. Jazarpentzat joko da arrazarekin edo jatorri etnikoarekin, geografikoarekin edo sozialarekin lotutako jokabide ez desiratu oro, edo pertsona baten erlijioarekin edo sinesmenekin, desgaitasunarekin, adinarekin edo joera sexualarekin lotutako jokabide ez desiratu oro, helburu edo ondorio duena haren duintasunaren kontra eraso egitea eta giro larderiatsu, umiliagarri edo erasokor bat sortzea. **c)** Kirol-esparruetan, haien inguruetan edo haietara joateko balia daitezkeen garraiobide publikoetan kirol-ekitaldien kariaz egiten diren adierazpenak, keinuak edo irainak, arraza edo jatorri etniko, geografiko edo sozialagatik edo erlijio, sinesmen, desgaitasun, adin, sexu edo joera sexualagatik edozein pertsonaren aurkako tratu nabarmenki laidoak dakartenak, edo pertsonen eta taldeen arteko gorrotoa sustatzen dutenak edo Konstituzioan aldarrikatutako eskubide, askatasun eta balioen kontra larriki erasotzen dutenak. **d)** Kirol-esparruetan, haien inguruetan edo haietara joateko balia daitezkeen garraiobide publikoetan, kirol-ekitaldien kariaz kantuak, doinuak edo kontsignak kantatzea, edo pankartak, banderak, ikurrak edo beste seinale batzuk erakustea, edozein pertsonarentzat mezu umiliagarri edo larderiazkoak dituztenak arraza edo jatorri etniko, geografiko edo sozialagatik edo erlijio, sinesmen, desgaitasun, adin, sexu edo joera sexualagatik; orobat pertsonen eta taldeen arteko gorroto bultzatzen dutenak edo Konstituzioan aldarrikatutako eskubide, askatasun eta balioen kontra larriki erasotzen dutenak. **e)** Pertsona edo pertsona-taldee, kirol-ekitaldien kariaz aurreko paragrafoetan aipatutako egintzak gauzatzeko euskarria eskaintzen dieten bitarteko tekniko, ekonomiko, material, informatiko edo teknologikoak ematea, edo egintza horiek gauzatzera bultzatzen dietenak, edo gauzatzen laguntzen dietenak. **f)** Kirolean jokabide arrazista, xenofobo eta intoleranteak sustatzen dituzten pertsona edo taldeei baliabide tekniko, ekonomiko, material, informatiko edo teknologikoak ematea, bai eta horretarako euskarri digitalak sortu eta erabiltzea ere.

indarkeria-portaerei zigorraren ikuspegitik, delituak diren kasuan. Auzi hori argitzen ez duenez, RIOSek (2014 eta 2015) oso modu grafikoan planteatzen duen bezala, ematen du zigor-zuzenbidea kirol-estadioen ateetan geratzen dela.

Beste era batean adierazita, tolerantzia handiagoa al dago kirol-testuinguruan zigor kodearen arabera delituak irizten zaien indarkeria-jokabideen aurrean?

Ondorengo irudian (ikus **3. irudia**) grafikoki erakusten da berez anomalia juridikoa izan behar lukeena baina, dirudienez, normala dena kirol-testuinguruan, lan honetan parte hartzen duten eragileen pertzepzioaren arabera, hau da, kirol-erregulazioa gailentzen zaiola zigor kodeari, azkeneko honen arabera delituak diren indarkeria-jokabideen aurrean. Dirudienez, jende gehienak uste du tolerantzia handiagoa dagoela kirol-testuinguruan gainerako testuinguru sozialetan baino. Alegia, zigor txikiagoak ezartzen zaizkie, zigor kodearen arabera zigortzekoak liratekeen hainbat portaerari.

3. irudia: Kirol-testuinguruko delituzko indarkeria-jokabideekiko tolerantzia maila, testuinguru orokorrekoekin alderatuta



Egia da, kasu askotan, *volenti non fit injuria* printzipioa argudiatzen dela, zeinaren arabera kirolariek beren gain hartzen dituzten (ikusi egin behar zer mailataraino) kirola praktikatzek loturik daramatzan arriskuak (jakitekoa litzateke, era berean, zein diren arrisku horiek), hain zuzen ere, zigor kodea aplikatzearen

zailtasuna justifikatzeko kirolaren testuinguruan; eta antzeko zerbait gertatzen da ikusleekin.

Gure iritzian, arazoari irtenbidea emateko zigor-justiziaren arloko legeria arrunta kirol-testuinguru desberdinetara aplikatzeko modua definitu behar litzateke, bai jokoaren esparruan eta bai ikusleenean. Modulatzeko den beste zeinahi aplikazio mota, irregularra ez ezik, arriskutsua litzateke, beste arrazoi batzuen artean, indarkeria legitimatzeko arriskua legokeelako, kirol-ikuskizunek komunikabideen aldetik izaten duten jarraipena kontuan izanda.

Eta igaro gaitezen orain kirolarekin lotutako indarkeria erantzukidetzeko sistemiko baten ikuspegitik aztertzea

5. KLI (Kirolarekin Lotutako Indarkeria) aztertzeko eta modu partekatuan kudeatzeko proposamena, erantzukidetasun sistemikoaren ikuspegitik

Zalantzarik gabe, arazo sozial konplexu baten aurrean gaude; sustrai soziokultural argiak ditu, eta, beraz, partekatutako kudeaketa eskatzen du, eragile eta gizarte-erakunde askoren arteko gestio partekatu bat, erantzukidetasunean oinarritua. **Uztailaren 11ko 19/2007 LEGEAk** horixe irizten dio bere hitzaurrean, honako hau dioenean:

Kirolaren inguruko indarkeriaren aurkako ikuspegi global batek berarekin darama, era berean, administrazio publiko guztien arteko lankidetzak eta haien eskumen espezifikoekiko errespetua, izan ere, fenomeno horren tratamenduak hainbat administrazioek elkar hartzea eskatzen baitu, bai kirolaren eremuan, bai segurtasunarenean eta bai ikuskizun publikoei dagokienean.

Lehenengo zehaztapena hizpide dugun esparruaren mugaketak berak emango digu. Gure kasuan, aurreko apartatua aurreratu dugun bezala, **kirol-topaketetan** zentratuko gara eta, bereziki, izaera **kolektiboa** eta taldeen artean **ukitze fisikoa** dagoen kirol-partidetan, ahaztu gabe **lehiaketa** izaera dutela eta **nolabaiteko kirol-ikuskizuna** izaten dela tartean, horiek baitira KLiren arazoari dagokionez, garrantzia dutenak, aurrez adierazi dugun bezala.

Garrantzitsua da ideia hori azpimarratzea, zeren eta, bestela, eremua gehiegi irekitzen ariko ginateke, eta orokorkerietan erortzeko arriskua genduke, eta horrela ez da posible kiroleko indarkeriaren aurkako borrokan, elkarren artean sortutako proposamen bideragarriak egitea.

KLiren fenomenoak aztertzen eta kudeatzen saiatzeak fenomenoak «disekzionatzea» eskatzen du eta hura eragiten duten faktoreei buruzko galderak planteatzea. GOMEZek (2007:85) hainbat galdera egiten ditu KLirekin erlazioa duten faktoreen eraginaz, hala nola kirol mota (banakakoa edo taldekakoa); indarkeria non

gertatzen den (estadiotik kanpo edo barruan); noiz gertatzen den (ekitaldiaren aurretik, bitartean edo ondoren); nor egon daitezkeen tartean (kirol indibidualetako atletak, talde-kiroletako kirolariak, entrenatzaileak, ikusleak, arbitroak, komunikabideak,...); noren artean gertatzen diren (aurrez aipatutakoetatik); eta, azkenik, nortzuk lagun dezaketen hari aurka egiten (aurrez aipatutakoak, gehi hezitzaileak, psikologoak, soziologoak, psikiatrak,...).


Gogoetagai horiei eta beste batzuei helduta, kirol-topaketa horietan KLI nola garatzen den aztertzea erabaki dugu, eta, KLI modu partekatuan kudeatzeko ekintza zehatzetara bideratu nahi denez, elkarri uztartutako **hiru dimentsioren** arabera egituratzea:

1. lehenengoa, **denborari** lotua, hau da, partidaren (a) *aktibazioa* (*prestaketa*), (b) *joko-denbora* eta (c) *legatua* (*ondorioak*);
2. bigarren dimentsioa, **espazio-egoerari** buruzkoa; hots, espazioaren diseinua eta kudeaketa (arkitektonikoa eta urbanistikoa), eta kirol-partidetan KLI sustatzen duten faktoreak;
3. hirugarren dimentsioa, **gizarte-eragileei** dagokiena; hau da, kirol-partidetako rolak eta instituzio garrantzitsuak;

Horiek guztiak, gainera, lehen, bigarren eta hirugarren mailako faktoreekiko sentikorra den prebentzio-ikuspegi bat erantsiz aztertu eta kudeatu beharko dira, izan ere, faktore horiek aipatutako kirol-partiden aktibazioari (prestaketari) dagozkio lehen mailako prebentzioaren kasuan, jokatzeko denborari, bigarren mailako prebentzioaren kasuan, eta hirugarren mailakoa, berriz, legatuari (ondorioak) dagokio. Nolanahi ere, gorago esan bezala, dimentsio horiek modu konplexuagoan txirikordatzen dira horiek sailkatzeko hartzen dugun edozein erabaki baino.

Ondoren (ikusi **4. irudia**), dimentsio horiek grafikoki laburbiltzen ditugu:

4. irudia: KLiren ikuspegi sistemikoa kirol-topaketetan



a. KLiren kudeaketa partekatuaren aldiak

Orokorrean, KLiren kudeaketa partekatuaren aldiei buruz ari garenean, honako hauek ditugu gogoan: topaketaren (a) *aktibazioa (prestaketa)*, (b) *joko-aldia* eta (c) *legatua (ondorioak)*. Aktibaziotik (prestaketa) eta legatutik (ondorioak) hasiko gara, eta azkeneko utziko dugu joko-aldia.

Partidaren **aktibazioan (prestaketa)** sar liteke ekitaldian parte hartzen duten eragileen haurtzaroko esperientzietatik hasi eta partida jokatu aurreko minutuetara bitarteko denbora guztia. Alegia, aipatutako partidari hasiera eman aurretik gertatutako guztia.

Garrantzitsua da denbora-ardatz luze hori gogoan hartzea, jatorri soziologikoko edo egoera jakinei lotutako auziak azaleratzen baititu.

Lehenengoetan, pertsona horiek KLIren sozializazioarekin nolako harremana izan duten azalduko litzateke (Zer esperientzia izan dute KLIekin? Zer tolerantzia dute KLIri dagokionez? Izan al dute inoiz –edo ba al dute orain– KLIekin lotutako jokabiderik?...). Analisi soziologiko horrek auzi estrukturaletan sakontzeko bidea emango liguke, hala nola gizarte-instituzioen rola (familia, eskola eta kirola bera, beste batzuen artean), faktore kausalak zehazteko eta berorietan eragiteko KLIren lehen mailako prebentzioaren ikuspegitik. Beste era batera esanda, KLIko portaeraren sustrai sakonetan hondoratzeko estrategia izango litzateke, baina ezer gutxitarako balioko luke –edo ezertarako ez– topaketaren egunean KLI modu partekatuan kudeatzeko.

Denboran hurbilagokoa den kudeaketa partekatu horretarako, partidako KLIekin erlazioa duten egoera-alderdiak aztertu eta kudeatu beharko lirateke, eta alderdi horiek, neurri handi batean, baina ez erabat, Segurtasuneko Indar eta Kidegoen ardura izango dira. Ez dago dudarik, zentzu horretan, alde handia dagoela beheko kategorietako futbol-topaketa baten eta lehen mailako partida baten artean, bateko eta besteko parte-hartzea kontuan hartzen badugu, baina, analisi sistemikoaren ikuspegitik begiratuta –4. irudian azaldutakoa–, berdin-berdin balioko luke batean zein bestean, KLIren kudeaketa partekatuari buruzko alderdiak zehazteko.

Arrazoi soziologikoen eta arrazoi situazionalen arteko konexioak galdera bat dakarkigu ezinbestean; alegia, ea zer pisu eduki behar lukeen horietako bakoitzak kirolarekin lotutako indarkeriaren prebentzioan; izan ere, esku-hartzea bete-betean situazionala bada, ezin izango da indarkeriaren arazoa guztiz erauzi (edo, egitekotan, poliziaren esku-hartze handi eta zabal bat beharko litzateke –eta horrek inplikazio etikoak eta juridikoak izango lituzke–); baina egia da, halaber, sakoneko arrazoiak soilik joko balitz ere, ezin izango litzatekeela eragotzi pertsona batzuek KLI jokabideak edukitzea. Arrazoizkoa, beraz, bai aldien ikuspegi honetatik, bai gainerako ikuspegietatik, esku-hartze integral bat lantzea izango litzateke, arian-arian, aurrera egin ahala, ez daitezen beharrezkoak izan egoerari lotutako «salbuespenezko» prebentzio-egintzak.

Era berean, gizarte-eragileei dagokienez, egin daiteke, halaber, termino diakronikoetan egindako azterketa bat eragile horien guztien (aurrez ohartarazi dugun bezala) sozializazio orokorrari buruz, baina baita, berorien artean presente dauden rol bakoitzak izandako ikaskuntza espezifikoaren arabera ere, bereziki nabarmenduta, betiere, gurasoen, entrenatzaileen, legezko ordezkarien eta arbitroen rol hezitzailetan. Nolabait ere, pertsona horiek izan daitezke –eta hala behar dute– balio onen sustatzaile, eta, jakina, balio txarren gaitzesle, «behe-behetik» hasita. Aipatutako horiek izan behar lukete, beraz, paradigma-aldaletaren eragile nagusiak, bestelako kirol-ikuskizun bat eratzeke, non KLI, desagertuko ez bada ere, guztiz minimizatuta geratuko den. Beste era batera esanda, berorien lana izango da gaur kirol-ikuskizuntzat daukagun horren irizpide (*est*)etikoak berriro konfiguratzea, eta,

horretarako, miniaturoko kirol-ikuskizunak eraberritzetik hasi behar da, edo, bestela, simulatzaile moduko batzuk sortu jokalaria, entrenatzaile edo arbitro izaten ikasteko, baina baita zale izaten ikasteko ere.

Kirol-partidaren **legatura (ondorioetara)** igarota, partidaren aktibazioarekin (prestaketa) gertatzen den bezala, denbora-tarte luzea hartzen du fase honek: topaketa amaitu den momentutik hasita, KLIren kudeaketa partekaturako garrantzizkoa iruditzen zaigun etorkizuneko denbora-tarte guztia.

Kirol-topaketetan KLI kudeatzeko orduan kezka gehien sortu izan duen fenomenoetako bat jarraitzaile eta zaleen taldeek sortutako mota guztietako liskarrak dira, topaketa hasi aurretik ere bai, baina, batez ere, behin partida amaitu ostean. Liskar horiek, areriotasunaren isla izan ordez — erabat gaizki ulertua, nolanahi ere—, politikarekin zerikusia duten beste auzi batzuen ondorio ei dira. Alegia, badirudi kirol-topaketak erabiltzen dituztela (komunikabideetan duten oihartzunagatik, pertsonen kontzentrazioagatik, ematen duten anonimotasunagatik eta/edo beste motibazio batzuegatik) beren ideologia politikoak finkatzeko eta areagotzeko, kontrako taldea baino harago dagoen etsai baten aurkako «gerra erritualizatu» batean (MARSH eta beste batzuk, 1978).

Komunikabideek rol erabakigarria jokatzeko dute KLI erreproduzitzeko eta areagotzeko orduan, kazetaritza-estilo jakin batzuk erabiltzearen bidez, bai «gerra erritualizatu»¹⁰ moduko horretan eta bai albiste txarretan onetan baino interes handiagoa duten beste estrategia batzuen bitartez, kazetaritza giroko «Good news isn't news» («Albiste on bat ez da albiste») esaldia on egiten dutela.

Partida-ostearen kudeaketa partekatuak aurrez aurre jartzen digu, beste batzuen artean, hirugarren mailako prebentzioa ere. Alegia, KLI jokabideak izateagatik zigortuak izan diren edo zigortuak izateko izapideetan dauden pertsonak birgizarteratzera zuzendutako egintza guztiak. Zigor horien zentzua eta eraginkortasuna, guri dagokigunez, beste asmo batzuen artean, honetan oinarritzen da: KLI jokabideetan berriro erortzea eragotzi behar dute. Ez hautemateak, zigorrik ez aplikatzeak edo aplikazio txarrak (handiegia edo murriztegia delako, edo epeak asko luzatzen direlako zigorra aplikatu arte) hirugarren mailako prebentzioak eraginkortasuna galtzea dakarte.

Esparru honetan behar-beharrezkoa da gogoeta egitea existitzen diren tresna zigortzaileei buruz eta hizpide ditugun kirol-testuinguruetan izaten duten aplikazioaren inguruan. Juristak izan gabe, gaiari buruz dagoen arautegia zabalean aztertuta, ikusten da arautegia ona dela. Nolanahi ere, arazoa, beste hainbat eremutan bezala, arautegia behar bezala aplikatzeko baliabideetan dago. Badirudi hortxe dagoela hobekuntza-premia nabariena, araudian baino areago.

Ondoren, espazio-egoerari buruzko dimentsioa aztertzeari ekingo diogu, kirol-partida jokatzeko denboran zentratuta.

¹⁰ 2018ko azaroaren 16ko *El País* egunkariaren izenburua, Espainia eta Kroaziako selekzioen partida hizpide zela: «Modric invade España» (iturria: https://elpais.com/deportes/2018/11/15/actualidad/1542311820_626069.html)

b. KLI egoerak sorrarazten dituzten espazioak al dira kirol-norgehiagokak?

Epigrafe honen galderari erantzunez, eta auzi honen inguruko teoria kriminologiko guztiaren argitan, esan liteke partidaren dimentsioa zenbat eta handiagoa izan, hau da, zenbat eta ekitaldi izaera handiagoa, joera handiagoa izango dela KLI egoerak gerta daitezen.

Kirol-topaketak egoeraren ikuspuntutik behatzen ditugunean, batez ere, kirol-ekitaldi handien dimentsioak dituztenen kasuan, hala nola lehen mailako futbol-partidak, kirol-estadio handiak tarteko direla, geure buruari galdetzen diogu zer nolako eragin urbanistikoa duten ekitaldi horiek gertatzen diren hirietan, batik bat, segurtasunari dagozkion alderdietan.

Horrela bada, egoeraren perspektibatik ikusita, ekitaldi handi horietan hainbat prebentzio-teknika jartzen dira abian, beren segurtasun-estrategien barruan. Hona horietako zenbait: sarbideak eta irteerak kontrolatzea, KLI portaerak errazten dituzten objektuen kontrola (armak, jaurti daitezkeen objektuak –botilak, kasu-, alkohola eta beste substantzia batzuk kontsumitzeko debekua, ...), zainketa pribatua eta TBko zirkuitu itxiak areagotzea, liskarrak eragozteko zaleak bereizita, etab. Ondorengo **4. taula** erakusten da SUMMERsek (2009: 398) egindako egoerei lotutako 25 prebentzio-tekniken laburpena.

4. taula Egoerari lotutako delituaren prebentziorako hogeita bost teknikak (CORNISH y CLARKE, 2003). Hemendik aterea: SUMMERS (2009: 398)

AHALEGINA HANDITZEA	ARRISKUA HANDITZEA	IRABAZIAK MURRIZTEA	PROBOKAZIOAK MURRIZTEA	AITZAKIAK EZABATZEA
Helburuak oztopatzea Ibilgailuen lapurreten aurkako aseguruak; lapurreten aurkako pantailak eta bilgarriak.	Zaindari kopurua handitzea Gauetz taldean irtetea; eskuko telefonoa eramatea.	Helburuak ezkutatzea Garajeetan aparkatzea; markatu gabeko bankuen furgonetak	Frustrazioak/estresa murriztea Efizientzia mantentzea ilaretan; behar hainbat eserleku.	Arauak ezartzea Alokairu-kontratuak; hoteletan erregistratzea; jardunbide-kodeak.
Sarbideak kontrolatzea Atezain automatikoak; txartel bidezko sarbideak; ekipajeen kontrola.	Zaintza erraztea Hobekuntzak argiterian; defenda daitekeen espazio baten diseinua.	Helburuak lekualdatzea Irrati erauzgarriak; tratu txarrak jasan dituzten emakumeentzako babeslekuak;	Liskarrak ekiditea Estadioetan eremuak izendatzea zaleen talde batzuentzat eta besteentzat; tabernetan jende-pilaketak	Jarraibideak finkatzea «Ez aparkatu»; «Jabetza pribatua»; «Suak itzaltzea».

		kreditu txartelak.	murritzeta.	
Irteerak kontrolatzea Aparkalekuetako tiketak; esportazio -baimenak.	Anonimotasuna murriztea Taxilarien nortasun -txartelak; uniformeak.	Jabetza identifikatzea Jabetza -markatzaileak, baita ibilgailuena (ad. txasis-zenbakia) eta ganaduena ere.	Kitzikapen emozionala murriztea Haur-pornografiaren zabalkundea kontrolatzea.	Kontzientzia ernaraztea Zirkulazioko kanpainak (alkohola, abiadura).
Urratzaileak desbideratzea Tabernak sakabanatzea; unisex motako komunak ekiditea; kaleak ixtea.	Tokien «kudeatzaileak» sartzea Segurtasun-kamerak autobusetan.	Delitu-merkatuak nahasaraztea Saltzaile ibiltariak kontrolatzea.	Erreferentziako taldearen presioa neutralizatzea «Esan ez drogei»; ikastetxeetan endredatzaileak sakabanatzea.	Adostasuna laguntzea Komun publikoak eta zakarrontziak eskaintzea.
Erraztaileak kontrolatzea Lapurtutako eskuko telefonoak desgaitzea; ganibeta -salmenta kontrolatzea.	Zainketa formala areagotzea Lapurreten kontrako alarmak; segurtasuneko langileak.	Etekinak ezabatzea Grafitiak garbitzea; abiadura-mendixkak; tinta gorriaren edukiontziak.	Imitazioak burutik kentzea Jardutako moduaren xehetasunak zentsuratzea; bandalismo-kalteak berehala konpontzea.	Drogak eta alkohola kontrolatzea Alkoholometroak; miaketak.

Aipatutako esku-hartzeetako arazoa izan ohi da, ikaskuntzari eta hobekuntzari begira, esku-hartze horiek oinarrian duten teoria kriminologikoaren ezagutzarik gabe aplikatzen direla eta, hortaz, beroriek ebaluatze eta hobetzeko ahalmena galtzen dela.

Egitate horrek garrantzi handia du gure iritzian, izan ere, kirol-ekitaldi handien oinarritzko arazoetako bat argitzea zailtzen baitu, hain zuzen ere, ekitaldi horien dimentsionamendua bera. Delitu-patroiaren teoriaren arabera (BRANTINGHAM eta BRANTINGHAM, 1991, 2008), kirol-ekitaldiak KLI jokabideen (eurak delituak aipatzen dituzte, orokorrean) *erakarle* izango lirateke, biltzen duten pertsona kopuru handiarengatik, «beste gabe». Analisi hori KLiren muturretako batera eramanez –kirol-ekitaldietako *ekintza terroristak* (ALDAZ eta beste batzuk, 2017)–, diseinu fisikoa eta ekitaldien balio sinbolikoa baitezpadakoak dira berorien babeserako.

ALDAZ eta beste batzuekin (2017) jarraituz, kirol-ekitaldia gauzatzen den tokiak hirian duen kokapena, espazioan kontzentratuta edo sakabanatuta dagoen, bai eta nola kokatuta dagoen ere bide nagusiei eta hiri-diseinuko beste elementu batzuei buruz, garrantzitsuak dira balizko lege-hausleak tokira errazago edo zailtasun handiagoz iristeko, baita ihes egiteko aukerei dagokienez ere, hori nahi balute.

Planifikazio handia duten KLiko jokabideetan –ekintza terroristen kasuan, adibidez–, ekitaldiaren kokapenarekin lotura duten faktore horiek segur aski oso kontuan hartuko dira beren helburuak hautatzeko orduak.

Batez ere egoerarekin lotura duten KLI modu partekatuan kudeatzeko estrategiak aurrera eramatearen arazo nagusia da –eta kritika hori egin ohi zaie– indarkeria horren kausak ezabatu orde, hura espazioan eta denboran lekualdatzea lortzen dutela. Lekualdatze horri buruzko kritikek, egiazkoak izanik ere, ez diote baliorik eta garrantzirik kentzen estrategia horiei, inondik ere, baina gogora ekartzen digute, zalantzarik gabe eta behin eta berriz diogun bezala, KLiren fenomeno oso konplexua dela, hala ulertzeko nola kudeatzeko, eta, zentzu horretan, egoerari lotutako prebentzio-teknikek egin dezakete beren ekarpena esandako arazoa ulertzeko eta modu partekatuan kudeatzeko.

c. Aldaketa-eragileak ala KLiren ugalketa eta hedapena?

4. irudian ikusi ahal izan genuen bezala (16. orrialdea), kirol-topaketetako KLiren analisiari lotuta dauden dimentsioez gainera, asko dira arazo horretan inplikaturik dauden eragileak.

Eragile horiek, kirolari protagonistetatik hasi eta etxetik telebista bidez partida bat ikusten dauden zaleetan amaitu arte, hainbat rol betetzen dituzte bai partidaren garapenari dagokionez eta bai gerta litezkeen KLI adierazpenen kudeaketa partekatua inguruan.

Halaber, ez dago inolako zalantzarik KLiren kudeaketa partekatuak esanahi bereziko garrantzia hartzen duela tartean adingabeak daudenean, hala jokoaren protagonista direnean (kirolariak, arbitroak edo entrenatzaileak), nola ikusle papera jokatzen dutenean. Esan bezala, garrantzi berezia hartzen du horrek bai adingabeek kirolari dihardutenean, baina baita kirol-ikuskizun handiak ikustera doazenean ere. Bi kasuetan galdetu beharko litzateke ea ekitaldi horiek egokituta ote dauden adingabeen garapen-beharrizanetara.

Edonola ere, kirol-topaketetan inplikaturik eragileen analisia bakundu egin daiteke, eragile horiek KLian eta berorren kudeaketa partekatuan jokatzen duten rola arabera. Hau da, *erasotzaileak*, *biktimak* eta/edo *zaindariak* diren. Balizko hiru rol ideal horiek pertsona bakar batek joka ditzake, bere bizitzako hainbat momentutan, baina baita partida bakar baten barruan ere, intentsitate desberdinetan eta batzuk eta besteak gurutzatzen direla.

Egia esateko, egoera «ideala» erasotzailerik eta biktimarik gabeko hura da, kasu horretan, gainera, ez bailitzateke zaindaririk ere beharko, baina baldintza «errealistagoetara» etorrira, ez dago zalantzarik askoz hobe dela esandako hiruko hori gertatuko den aukerarekin jokatzea, eta berori modu partekatuan kudeatzea, ahalik eta kalte gutxien izan dadin.

Egia baldin bada ere joko-zelaiko dinamika sozialak eta kirol-esparruko harmailetakoak desberdinak direla, *erasotzaileak, biktimak* eta/edo *zaindariak* eskema, bere oinarrizko zentzuan, berbera litzateke. Benetako erronka da ez dadila egon erasotzailerik, edo, baldin badaude, ahalik eta zailena eduki dezatela beren KLI jokabideekin biktimak sortzeko. Hori lortzeko bi esparrutan jardun daiteke, bai erasotzaile potentzialengan eta bai biktima potentzialengan.

KLirik gabeko egoera ideal bateko goranzko eskala batean, lehenengo ideala litzateke erasotzaile potentzialek behar bezainbateko auto-kontrol ahalmena bereganatu izatea beste batzuei lesioak eragin lekizkiekeen portaerak ekiditeko, eta bigarrena, KLirik gabeko sozializazio hori lortu ez arren, KLiren biktima potentzialen auto-babeserako estrategiek eta zaindarien, ezinezkoa ez bada ere, zailtasun handiak jartzea erasotzaile potentzialek indarkeria-ekintzak aurrera eraman ditzaten. Hori bat etorriko litzateke, aurrez aipatu izan dugun bezala, KLI jokabideei dagokienez, soziologia izaerako kausak modu partekatuan kudeatzeko estrategiekin, lehen kasuan; eta egoerari gehiago lotutako estrategiekin, bigarrenetan.

Erasotzaileen eta biktimen profilari dagokionez, oso kontuan hartzeko alderdi bat, batez ere, estratifikazio sozialaren dimentsioak dira. Alegia, adina, generoa, etnia, gizarte-klasea eta osasun psiko-fisikoa; hala, honako hauek dira, besteak beste, horien ondoriozko KLiren adierazpen nagusiak: arrazismoa, sexismoa eta homofobia («ismo» horien eta beste batzuen adibide nabariak dira futbol-zelaietan entzuten diren irainak). Dimentsio horiek ez dute modu berean jarduten KLiren erasotzaile eta/edo biktima izateko probabilitateari dagokionez, ez joko-zelaiaren barruan eta ez kanpoan, kirol-partidetan.

Nolanahi ere, guztien artetik, badirudi generoaren dimentsioa erabakigarria dela KLiren arazoa ulertzeko eta modu partekatuan kudeatzeko; izan ere, azterlan gehienen argitan, «gizonen» kontua da guztia, bai erasotzaile kopuruari dagokionez, eta bai indarkeria horren biktimei buruz ari garenean ere. Horrek, alde batetik, espero izatekoa dirudi; gizonen presentzia, izan ere, askoz handiagoa baita emakumeena baino, bereziki hemen hizpide ditugun kirol horietan. Kasu horretan, ordea, beste zalantza bat sortzen zaigu: hau da, KLI portaera kiroleko genero-rol eta -identitateen sozializazio baten parte ote den, edo kirolaren barruko berezko sozializazio arazo bat den.

KLI maskulinizatu horrek maila askotan ditu inplikazioak, kirol-praktikaren esparruan nork bere buruari aplikatutako indarkeria barne dela, izan ere, MESSNERek (1990) adierazi bezala, gorputza beste batzuen kontrako arma bihurtzen da, baina baita norberaren kontrakoa ere, biktimaren eta erasotzailearen ideiak modu konplexuan bat eginda. Horrek, beste behin ere, funtsezko garrantzia hartzen du adingabeez ari garenean.

Ildo horretan, KIMMELeK (1995, in YOUNG, 2012) dioen bezala, badirudi gizonen prezio bat ordaintzen dutela gizartean okupatzen eta gozatzen duten pribilegiozko posizioagatik, izan ere, egile horren arabera, maskulinitasuna baita

gizonen artean heriotza eta gaixotasunen kausa nagusia. Ildo horretan YOUNG-ek dioen bezala (2012: 165)¹¹:

...maskulinotasunaren forma menderatzaileetan sozializatzeko prozesuak bultzatuta, emozioak ukatzen ikasten da eta neutraltasun afektibo moduko bat garatzen, eta, era berean, merezi duten garrantzi kulturala ematen zaie gorputza arriskuan jartzen duten ekintza eta jarrerari (Jackson 1990). Trebetasun maskulinoa, askotan, fisikotasun suntsizaileetan oinarritzen da eta osasunaren inguruko isiltasun nabarmena dakar (Hearn 1992; Rutherford 1992). Horren emaitza gisa, gorputzaren ongizatearekiko sentsibilizazioa eta osasunaren prebentzioa emakumeen eta gizonezko «anbiguen» jurisdikzioan sartu ohi dira.

Horrela, generoaren bektoretik, argi ikusten da nola eragiten dioten elkarri KLI portaerek –zuzenekoagoak– eta izaera estrukturalagoa edo kulturalagoa dutenek.

Igaro gaitezen, orain, kirolaren inguruko indarkeriari buruzko datuak aztertzeraz, arazoaren neurriak zehazteko.

6. Kiroleko indarkeriaren arazoari buruzko elkarrekin sortutako analisi deskribatzailea eta partziala

Kirolarekin lotutako indarkeriaren (KLI) diagnostikoa egiteko, hainbat denboralditan bildu diren eta hala nazio nola autonomia mailan eskura dauden datu-iturri desberdinen analisia izan da abiapuntu. Horrela, bai iritzi-azterlanak eta bai izaera ofizialeko edo zenbait erakunde espezifikoak –hala nola Eusko Jaurlaritzaren kiroleko indarkeriaren aurkako Batzordeak (Kirolalde)– bildutako datu estatistikoak erabili dira, zehatzago esanda, honako hauek:

- Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak (Kirolalderekin lankidetzan) egindako «Kirola egiteko ohitura eta jokabide bortitzak kirol lehiaketetan» izenburuko azterlana (2011ko azaroa)
- Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren jardueramemoriak (2011, 2012, 2013, 2014, 2015, 2016 eta 2017)
- Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren espedienteak (2016 eta 2017)
- Joko eta Ikuskizunen Batzorde Nazionala (2010/11, 2011/12, 2012/13, 2013/14, 2014/15, 2015/16 eta 2016/17 denboraldiak)

¹¹ Itzulpena gurea da.

- KIROLALDEK egindako hainbat azterlan, adibidez, datu-base multifederatua (2009/10) eta eskola-kiroleko arbitroen aktak: Futbola (2009/10), edo kiroleko indarkeriari buruz kirol-eragileei egindako Delphi inkesta (2012)

Iturri horien analisitik –homogeneoak ez badira ere– hainbat datu atera dezakegu aztertzen ari garen arazoaren testuingurua zehaztea ahalbidetuko digutenak, hark izan ditzakeen alderdi eta dimentsio desberdinetan.

2011n egindako inkesta baldin bada ere, iruditzen zaigu Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak egindako inkestan bildutako datuak, segur aski, ez direla askorik aldatu ordutik hona eta auzira hurbiltzeko baliagarri gertatuko zaizkigula. Inkesta horretan, EAEko biztanleriaren % 52k diote joaten direla noizbait kirol-lehiaketak ikustera: Biztanleriaren % 17k dio astero joaten dela, eta % 11k hilean bi aldiz, gutxienez. Elkar baztertzen ez duten aukerak badira ere, argi dago alde nabarmenak daudela lehiaketa horiek mota batekoak edo bestekoak izan.

Eskolakoak ez diren lehiaketez ari bagara, biztanleen % 24k diote ikusteagatik sarrerarik ordaintzen ez den lehiaketetara joaten direla, eta % 27 dira, aldiz, inkestatuen artean, ikusteagatik sarrera ordaindu behar izaten den eta eskola mailakoak EZ diren kirol-lehiaketetara joaten direla diotenak. Eskola mailako lehiaketez ari bagara, biztanleen % 19 joaten dira halakoak ikustera (hau da, kirol-lehiaketetara joaten direla dioten % 37), haietako gehienek kasuan (% 59) futbola ikustera.

Gisa horretako indarkeriazko portaerak gertatu diren kirol-ikuskizunetara joan direnei dagokienez, datu hauek lortu ditugu, biztanleria osoa hartuta:

- % 27 joan dira jokalarien kontrako hitzezko erasoak gertatu diren kirol-ikuskizunetara
- % 22 joan dira ikusleen arteko hitzezko erasoak gertatu diren kirol-ikuskizunetara
- % 20 joan dira jokalarien arteko hitzezko erasoak gertatu diren kirol-ikuskizunetara
- % 7 joan dira ikusleen arteko eraso fisikoak gertatu diren kirol-ikuskizunetara
- % 14 joan dira jokalarien arteko eraso fisikoak gertatu diren kirol-ikuskizunetara

Eusko Jaurlaritzaren inkestan, berriz, ikusi dugu biztanleen hirutatik batek baino gehiagok (% 38) uste duela kiroleko indarkeria guztiz erlazionatuta dagoela gizartean dauden indarkeriazko jokabideekin, eta, aitzitik, % 15era ez dira iristen, baten eta bestearen artean erlazorik ez dagoela irizten diotenak. Oro har, galdeketa egin zitzaien pertsonen % 67ren iritzian oso egitate larria zen kirolean indarkeria egotea, eta eraso fisikoak jotzen zituen larrienak populazioaren % 76k; bien bitartean, keinu erasokorrak (% 55) edo hitzezko erasoak (% 54), iritzien erdiak baino gehiago metatzen zituzten arren, garrantzi txikiagoko egitateak dira.

Hala ere, argudiatzen dituzten arrazoi funtsezkoenak hizpide ditugun lehiaketa moten mende daude. Eskola arteko lehiaketez mintzatzen bagara, populazioak, oro har, gehien nabarmentzen dituen arrazoiak honako hauek dira: jendetasun falta (% 33), jokalarien gurasoen oldarkortasuna (% 25), gehiegizko lehiakortasuna (% 12) edota inguruko jendearen jarduketarekin kutsatu izana (% 10). Gutxiago hautatu diren arrazoiaren artean, % 3k arbitroarekiko errespetu falta adierazi dute.

Mota honetako indarkeriazko jokabideen atzean dauden arrazoi nagusiak

5. taula: Mota honetako indarkeriazko jokabideen atzean dauden arrazoi nagusiak

Eskola arteko lehiaketak	Eskola artekoak ez diren lehiaketak
- jendetasun falta (% 33), - gurasoen oldarkortasuna (% 25), - gehiiegizko lehiakortasuna (% 12) - inguruan direnen jokabidearekin kutsatzea (% 10) - arbitroarekiko errespetu falta (% 3).	- jendetasun falta (% 27), - fanatismoa (% 18), - oldarkortasuna (% 15) - ingurukoekin kutsatzea (% 9)

Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen Inkesta. Eusko Jaurlaritza, 2011

Eskola artekoak ez diren lehiaketetan gertatzen den indarkeriaren arrazoiaren artean hauek nabarmentzen dira: jendetasun falta (% 27), fanatismoa (% 18), oldarkortasuna (% 15) eta ingurukoekin kutsatzea (% 9).

Horrelako jokabideak arintzeko irtenbide posibleen artean, herritarrek honako hauek adierazi zituzten: kirolarien senitartekoak kontzientziazteko programak aplikatzea (% 30), balioetan oinarritutako hezkuntza-programak (% 39), kirolarien hezkuntzarako berariazko programak (% 13) eta indarkeria-ekintzei zigor handiagoak ezartzea (% 11).

Iritzien inguruko datuak alde batera utzi eta egitateei buruzko datu ofizialetan zentratzen bagara, informazio-iturri gisa interesgarria izan daitezke Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren azken bi urteetako espedienteak:

6. taula: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren 2016ko eta 2017ko espedienteak

		2017	2016
Guztira		119	82
Kirola	Futbola	114	79
	Saskibaloia	5	3
Ikusleek edo beste pertsona batzuek inguruetan izandako jokabidea	Irainak eta mehatxuak	1	22
	Erasoak, beste pertsona batzuei oldartzea	57	15
	Borroka eta desordena publikoetan parte hartzea	31	11
	Edari alkoholodunak edo estupefazianteak kontsumitzea	1	10
	Objektuak haustea, kalte materialak	-	6
	Aurkarien taldea zelatatzea haien aurkako erasoak prestatzeko	-	5
	Objektuak jaurtitzea	2	4
	Estadioan mozkortuta sartzea edo egotea	5	3
	Jokalekura sartzea	-	1
	Artefaktu piroteknikoak sartzea	-	1
	Baliozko titulurik ez edukitzea	1	1
	Agintaritzako agenteen jarduna eragozteak	-	1
	Estadio barruko gizalegerik gabeko jokabideak	1	
	Ikurrak erakustea	5	
	Sartzeko debekua ez betetzea	1	
	Bengalak jaurtitzea	3	
	Oihu intoleranteak	2	
	Latak edo objektu sukoiak sartzea	5	
	Bengalak kanpoaldean	1	
	GUZTIRA	116	80
Antolatzaileen jokabideak	Sarrera kontrolatzeko objektu piroteknikoak sartzeko eta pizteko aukera eman duten gabeziak egotea	3	2
	GUZTIRA	3	2

Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritzak

Logikoa den bezala, espediente gehienak Bizkaiko lurralde historikoari dagozkio, baina, era berean, lurralde horretan izan dute igoerarik handiena, 2016an 46 izatetik 2017an 78 izatera igaro baitira.

Ebatzitako espediente gehienak arinak izan dira (89tik 82, azken urtean).

Autonomia-erkidegoko datu horiez gainera, Joko eta Ikuskizunen Batzorde Nazionalak lortutako datuetan ere jar genezake arreta, eta ohartuko gara, datuak, azken urteotan, sobera egonkortuta baldin badaude ere, dirudienez, murrizteko joera arin bat dagoela jasotako salaketa kopuruan:

7. taula: Salaketa kopurua

Denboraldia	Salaketak guztira
2010/11	1313
2011/12	1436
2012/13	1205
2013/14	1493
2014/15	1314
2015/16	1300
2016/17	1115

Iturria: Joko eta Ikuskizunen Batzorde Nazionala

Harritzekoa ez denez, espedienteen jatorria era heterogeneoan banatzen da kirol guztien artean, ondoren zehaztuta datorren bezala, eta azkeneko bost denboraldiei dagozkien datuak aurkezten baditugu ere, azkeneko denboraldiari arreta berezia jartzen badiogu eta kontuan hartzen badugu azken urteko salaketen % 97 izapidetuta daudela, ikusiko dugu alde nabarmenak daudela kirol batetik bestera. Izatez, salaketen gehiengo handi bat futbolari dagozkio eta, zehatzago esanda, haien % 60 1. mailako eta 2. A mailako futbolekoak dira. Salaketen larritasunari dagokionez, % 57 arinak dira, % 41 larriak eta % 2 oso larriak.

8. taula: Salaketa kopuruaren bilakaera kirolaren arabera

KIROLA	Denboraldia 12/13	Denboraldia 13/14	14/15 denboraldia	15/16 denboraldia	16/17 denboraldia
Futbola	1158	1384	1264	1216	1058
Saskibaloia	10	24	16	10	7
Areto-futbola	2	5	2	4	8
Eskubaloia	4	2	1	2	-
Motoziklismoa/ Automobilismoa		3	1	12	-
Hockeya	3	8 (patinetan)	-	2	-
Boxeoa			-	-	1
Errugbia			-	-	2
GUZTIRA	1177	1436	1284	1246	1076

Iturria: Joko eta Ikuskizunen Batzorde Nazionala

2016/17 denboraldia xeheki aztertzen badugu, ohartuko gara salaketa gehienak liskarrak sustatzeagatik edo haietan parte hartzeagatik jarri direla, estadioaren barruan bai, baina, batez ere, kirol-esparrutik kanpo. Ildo horretan, polizia edo segurtasun-zaindariei egindako eraso edo irainen salaketak ere datu garrantzitsua dira; badute nolabaiteko erlazioa aurreko salaketekin eta bi espazioetan gertatzen dira, estadioaren barruan eta kanpoan.

Estadio barruan salatzen diren egitateen kopuru garrantzitsu bat, bestalde, substantzia sorgarrien kontsumoarekin lotuta daude, baita alkohol-kontsumoarekin edo kirol-esparrura alkohola sartzearekin ere; bien bitartean, ez dira asko petardoak, bengalak edo ke-potoak erabiltzeagatik jarritako salaketak, ezta objektuak jaurtitzeagatik ere, eta are gutxiago, joko-zelaira sartzegatik edo instalazioak kaltetzeagatik. Argi eta garbi gutxiengoan dauden egitateen artean daude indarkeriara bultzatzen duen pankartak edo kartelak eramatea, ekintza xenofobo edo arrazistak edota armak edo objektu gotorrak eramatea.

9. taula: 16/17 denboraldiko salaketen kausak

Kausa	16/17 denboraldia			
	Barnean	Kanpoan	GUZTIRA	Joera Aldaketa
Liskarrak sustatzea edo parte hartzea	156	293	449	+
Joko-zelaira sartzea	22	0	22	-
Objektuak jaurtitzea	20	3	23	+
Armak edo objektu gogorrak sartzea	7	0	7	-
Indarkeriara bultzatzen duten pankartak edo propaganda	6	0	6	+
Kalteak instalazioetan	10	0	10	-
Petardoak, bengalak edo ke-potoak	22	1	23	
Edari alkoholdunak sartzea edo kontsumitzea edo ontzi zurrunen salmenta	62	0	62	=
Substantzia estupefazianteak kontsumitzea	130	0	130	=
Arbitro, jokalaria edo marrazainen kontrako eraso edo eraso-saiakera	4	0	4	-

Erasoa edo irainak poliziei edo segurtasun-zaindariei	98	76	174	-
Egintza arrazistak eta/edo xenofoboak	7	6	13	+
Beste arrazoi batzuk	70	7	77	
Klubak, antolatzaileak edo kirol-sozietate anonimoa	73	0	73	
Kontzesionarioak	3	0	3	
GUZTIRA	690	386	1076	

Iturria: Joko eta Ikuskizunen Saila. Eusko Jaurlaritza

Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren espedienteak aztertzen baditugu, arau-haustek dituzten espedienteen arabera, ohartuko gara azken hauek argi eta garbi igo direla azken urteotan, eta, batez ere, ikusleen arau-haustek ugaltu direla, bai kirol-esparruaren barruan eta bai haren ingurumarietan:

10. taula: Arau-haustek egin izanaren ondoriozko espedienteak Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza

	2017	2016	2015	2014	2013	2012	2011
Espedienteak guztira	159	132	130	116	109	71	77
GUZTIRA Indarkeria kirolean	128	95	77	77	87	46	35
Antolatzailearen arau-haustea	3	3	4	4	7	4	9
Ikuslearen arau-haustea kirol-instalazioan	55	55	48	40	64	26	14
Ikuslearen arau-haustea ingurumarietan	65	34	14	33	16	16	12
Artxibatuak	5	3	11	Ez dago jasota	Ez dago jasota		

Iturria: Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza

Estatu mailako zenbait datu interesgarri kirol profesionalari buruzkoak

- Aztertutako denboraldi guztietan, guztizkoaren % 97tik gorakoa da gizonei proposatutako zigorraren %a.

- 16/17 denboraldian arrisku handikoak jotzen ziren 17 futbol-partida jokatu ziren 1. mailan, 7 2. A mailan, 9 partida 2. B mailan, 7 Erregearen Kopan, 18 Txapeldunen Ligan (Champions UEFA League), 8 Europako Ligan, batere ez saskibaloian (ACB ed Europako ligak) eta 2 beste kirol batzuetan.
- Azken txostenaren zenbait ondorio:
 - Futbol profesionalean (1. maila eta 2. A maila), lekualdatutako zale arriskutsuen kopurua % 53,3 murriztu da. Behera egin du, orobat, bortizkeriarako joera izan dezaketen tokiko jarraitzaileen presentziak (% 4,29)
 - Gutxitu egin dira zigor-proposamenak arrazoi hauengatik: liskarrak sustatzea edo haietan parte hartzea, indarkeriara bultzatzen duten pankartak edo propaganda (-% 12) eta alkohol-kontsumoa (-% 14); aldiz, gora egin dute beste hauek: material piroteknikoa erabiltzea (% 6), armak edo objektu arriskutsuak sartzea (% 4), egintza arrazista edo xenofoboak (% 3) eta joko-zelaira sartzea (% 7).
 - Atxilotuen kopurua hazi egin da (66tik 130era), eta hazi egin da, orobat, gutxi bada ere, estadiotik bota dituztenen kopurua (526tik 542ra)

Behera egin du arrisku handiko partiden guztizko kopuruak, 60tik (12/13 denboraldia) 55era (13/14 denboraldia), 83tik (14/15 denboraldia) 69ra (15/16 denboraldia) eta 44ra 16/17 denboraldian.

Zenbait datu interesgarri kirol ez-profesionalari buruzkoak:

- Guardia Zibilak 9.469 segurtasun-zerbitzu egin ditu bere jurisdikzioko 29.749 kirol-ekitalditan; berorietan 10.467 kirol-taldek hartu dute parte, eta esan behar da horietatik gehienak (7.356) futbol-taldeak izan direla. Topaketa horietatik 227tan soilik izan dira gorabeherak (% 95,6 futbol-partidetan).
- 15/16 denboraldian, 40 partida utzi ziren bertan behera sortutako istiluengatik; 16/17 denboraldian, berriz, 29 partida suspenditu ziren (% 27,5eko jaitsiera). Gertakari horietatik gehienetan (% 69) langile federatuek esku hartu zuten.
- 16/17 DENBORALDIAN jaitsiera arin bat izan zen gertakari kopuruan (% 8,71)
 - Kanpoaldean lau gertakari izan ziren (jazotako guztien % 1,5)

- 42 gertakari behin partida amaitu ostean (guztizkoaren % 16,03)
- Arbitroen aurkako erasoak % 25,22 gutxitu dira, eta eraso eta irainetan zentratzen dira; aurreko urtean, ordea, % 40 izan ziren.

11. taula: Kirol ez profesionalean nazio mailan erregistratutako gertakari kopurua

KAUSAK		16/17 denboraldia	Joera
Arbitroaren kontra	Erasoa	29	=
	Eraso saiakera	10	-
	Irainak	32	+
	Mehatxuak	15	+
	Kalteak ibilgailuari	0	-
	Guztira	86	+
Joko-zelaira objektuak jaurtitzea		4	=
Joko-zelaira sartzea		21	=
Jokalarien arteko gertakariak		32	=
Ikusleen arteko gertakariak		20	=
Ikusleen-jokalarien arteko liskarra		10	+
Egintza arrazistak eta/edo xenofoboak		2	+
Edari alkoholduen salmenta		7	-
Petardoak/bengalak		5	=
Guardia Zibilen kontrako irainak edo beste portaera batzuk		9	=
Beste gertakari batzuk		55	+
GERTAKARIAK GUZTIRA		262	+
GERTAKARIAK IZAN DITUZTEN PARTIDAK GUZTIRA		227	+
Gertakarien TASA (gertakarien kopurua 1000 kirol-partidako)		9	-

Aztertutako datuetan ikusten da hazi egin dela apur bat arbitroaren kontrako mehatxu eta irainen kopurua, bai eta ikusleek jokalarien kontra izandako liskarrak ere; horrek erakusten du goranzko joera hartu dutela «intentsitate apaleko» indarkeria-ekintzek, hitzezko indarkeriak (ez fisikoa), alegia. Kausen artean

nabarmendutako gainerako jokabideak antzeko terminoetan mantentzen dira aztertutako aldiren barruan.

Hona, ondoren, aztertutako denboraldietan Kirolalderen memorietan jasotako datuetatik lortutako zenbait gogoeta interesgarri, lagungarri izan daitezkeenak KLIren fenomenoaren hobeto ulertzeko:

- Kirol federatuetan, denboraldiak aurrera egin eta ligaren amaiera hurbilago denean, kirol-ekitaldietako indarkeria-ekintzen intzidentzia handiagoa izaten da (hitzezko indarkeria, batik bat), futboleko batez ere.
- Indarkeria-ekintzen intzidentzia are handiagoa da kategoria zenbat eta altuago izan
- Lurralde bakoitzean guztira jokaturako partidetan oinarritzen bagara, Euskadiren kasuan, Bizkaiak du indarkeria-gertakarien tasa handiena
- Partiden % 5etan erregistratzen dira indarkeria-ekintzak (% 57 kirol-esparrutik kanpo, % 43, barruan)
- Kirol-esparruaren barruan: % 52 hitzezko indarkeria da, % 27 indarkeria fisikoa eta % 17 indarkeriara bultzatzea
- Kirol-esparrutik kanpo: % 70 hitzezko indarkeria, % 8 indarkeria fisikoa eta % 14 indarkeriara bultzatzea

Delphi metodoaren bitartez kirol munduko eragileei (hainbat diziplinako maila handiko kirolariak, entrenatzaileak, kirol-kazetariak, etab.) egindako ikerketa parte-hartzailean oinarrituta, informazio garrantzitsua lor dezakegu zeinak ahalbidetuko digun ikustea zeintzuk diren, pertsona horien iritzian, indarkeriazko ekintzetan gehien eragiten duten alderdiak, eskola-kirola, amateurra edo profesional mailakoa den arabera.

12. taula: Indarkeria-portaeretan eragin handiena duten alderdiak, kirol motaren arabera

Eskola-kirola		Gurasoak/itxaropenak Monitoreak/entrenatzaileak Lehiaketa-eredua
Hezkuntza/kirol-kultura falta		

Kirol amateurra		Norberaren nortasuna Permisibitatea/ Zigor urritasuna Norgehiagoka/presioa
Kirol profesionala		Zaleen presioa Komunikabideen presioa/joko-zelaian gertatzen dena gain- dimentsionatzea Norberaren nortasuna
Interes ekonomikoak Indarkeria marketineko estrategia gisa		

Iturria: Ispizua eta Campelo (2014) Eusko Jaurlaritzako Kirolalderen datuetatik abiatuta

Eskola-kirolean, jokalarien etorkizunerako itxaropena –batez ere jokalarien gurasoena–, indarkeriazko jokabideetan egundoko eragina duen faktorea da, monitore eta entrenatzaileen zenbait jarrerarekin batera, baina, beharbada, maila honetan eragin handienetakoa duen faktorea eskola-kirolean egun nagusi den lehiaketa-eredua da. Alor honetan, indarkeriazko jokabideak, haurren artean baino gehiago, ikusleen artean –gehienak, jokalarien hurbileko senitartekoak– gertatu ohi dira.

Eskolako etapa honetan ez badute kirolariek nolabaiteko kirol-hezkuntza edo kirol-kultura bereganatzen, oso gertagarria izango da kirol amateurrean ere indarkeriazko jarrerak eta portaerak sortzea, eta are gehiago parte-hartzaile edo kirolarien nortasuna bera ez baldin bada egokiena. Maila honetako jokabide edo portaera negatiboen kausa nagusiak, jokabide horiekiko permisibitatea, halakoen ondoriozko zigorraren urritasuna eta balizko aurkaritasuna eta presioa dira; eta esan behar da jokabide horiek garrantzia hartzen dutela, ez bakarrik zaleen artean, baizik eta, batez ere, jokalarien artean.

Kirol profesionalean ere indarkeriazko portaerak, batez ere, ikusleen eta zaleen artean gertatzen dira. Mota horretako jarreraren arrazoiak dira, batetik, zaleen euren presioa (kirol-lagunartek edo estadioko ikusleen multzoak egiten duena, baita handik kanpo ere), joko-zelaian gertatzen denari egundoko gain-dimentsioa ematen dioten eta hauspotzen duten komunikabideetako albisteek egindako presioa, eta, azkenik, norberaren irrika eta grinei galgarik ez jartzea.

Nolanahi ere, indarkeriaren jomuga alda daiteke kasu batzuetatik besteetara: hezkuntzak, presioak edo arbitroaren hutsegiteek eragina dute jokalarien artean gertatzen diren indarkeria-jarreretan, eta, epaile lanetan ari denaren akatsek eta izan lezakeen jarrerak, batetik, eta kirol-kultura ezak, bestetik, arbitroari zuzendutako irainetan edo indarkerian eragiten dute.

13. taula: Indarkeriazko portaera zer aktoreri zuzentzen zaion (edo zer aktoreren artean)

Jokalarien artean	Hezkuntza Presioa Arbitroen hutsegiteak
Arbitroaren irudiari	Arbitroen hutsegiteak Arbitroaren jarrera Kirol-kultura falta
Ikusleen artean	Estadioan: Masaren kutsadura
	Kanpoan: Kirolaz kanpoko alderdiak Alkohola / drogak

Iturria: ISPIZUA eta CAMPELO (2014) Eusko Jaurlaritzako Kirolalderen datuetatik abiatuta

Ikusleen arteko indarkeriaren kasuan, portaera horiek estadio barruan edo kanpoan gertatzen diren bereiz dezakegu: lehen kasuan, jende-masak eta ingurukoen portaerak kutsatzen du ikusleria bere jokabideetan; estadiotik kanpoko indarkeria-jokabideak eragiten dituzten motibazio nagusien artean, berriz, batez ere, kirolekik kanpoko alderdiak dira aipagarrienak (kasu askotan, politikaren arloko auziekin lotura dutenak), bai eta alkoholaren eta substantzia sorgarrien kontsumoa ere.

Eragileei egindako elkarrizketen azterketatik abiatuta lortutako informazioa:

Honako hauei igorri zitzairen fitxa, posta elektronikoz: Joko eta Ikuskizun Saileko ordezkariak eta arduradunak, Segurtasun Sailekoak (klubetako segurtasun-koordinatzaileak barne), kirol-klubetakoak (Bilboko Athletic, Real Sociedad, Alaves eta Eibar), Euskadiko Futbol Federakundea, arbitroen elkargoa, foru aldundietako arduradunak, eskola-kirolean indarkeriaren prebentzioarekin erlazioa duten enpresak, Kirolaldeko kideak, Kirol Justiziako Batzordeko kideak, etab. Epe baten barruan, fitxak beteta jaso ziren.

Era berean, pertsona berberei gonbita luzatu zitzairen gaiari buruzko iritzia eman eta eztabaida zezaten hiru parte-hartze mahaietan. Horietatik bi kirol profesionalari buruzkoak izango ziren, bata Gobernuako agenteek osatua (Kirol zuzendaritza, Segurtasun zuzendaritza eta Joko eta Ikuskizunetako zuzendaritza) eta bestea klubetako kideek osatuko zutena; hirugarren mahaian, berriz, oinarriko kiroleko eta eskola-kiroleko eragileek hartuko zuten parte (foru-aldundiak, federazioa, arbitro elkargoa, enpresa).

Aipatutako eragileek bai fitxetan eta bai talde-elkarriketetan egindako ekarpenak aztertu ondoren, hautemandako arazo nagusiak zehaztu eta ondoren erakusten ditugun koadroetan laburbildu ditugu

14. taula: KIROL PROFESIONALEKO eragile ordezkariak
hautemandako arazoak

1. ARAZOA	Politika-futbola erlazioa Zaleen politizazioa Futbol-kluba = sinbologia
2. ARAZOA	Tolerantzia-eza (grina) Futbol-kluba = sinbologia
3. ARAZOA	Klubaren epeltasuna erabakiak hartzerakoan Klubaren inplikazio falta hautemandako arazoen aurrean
4. ARAZOA	Arazoaren kokalekua Arazoak desberdinak dira eta soluzio, protokolo eta arduradun desberdinak dituzte, estadio barruan edo kanpoan gertatzen diren; horregatik, zaila da soluzio koordinatuak ezartzea
5. ARAZOA	Arazo zehatzak, hala nola: Hitzezko indarkeria Alkohola eta tabakoa

Iturria: Geuk sortua.

Kirol profeseionalean indarkeriarekin lotura duten arazo gehienek kirolaz kanpoko zergatiekin dute zerikusia, hala nola, politizazioa, tolerantziarik eza, jokabide horietatik eratorritako zehapenak nork eta noiz aplikatzen dituen, eta arazoen kokapena, izan ere, bai ardurak eta bai soluzioak eta ezarritako protokoloen aplikazioa desberdinak baitira indarkeriazko pasarteak non (estadioan edo ingurumarietan) eta noiz (ekitaldiaren aurretik, bitartean edo ondoren) jazo diren kontuan hartuta. Aipatutako horri guztiari alkoholaren eta substantzia sorgarrien kontsumotik eratorritako arazoak erantsi behar zaizkie.

15. taula: OINARRIKO KIROLEKO ETA ESKOLA-KIROLEKO
ordezkari diren eragileek hautemandako arazoak

1. ARAZOA	Indarkeria instituzionalizatzea Ez da identifikatzen intentsitate apaleko indarkeria
2. ARAZOA	Jokabide desegokien tolerantzia Egoeraren normalizazioa kolektibo guztien aldetik (gurasoak, hezitzaileak, ikusleak, etab.)
3. ARAZOA	Lehiakortasunari ematen zaion garrantzia IRABAZTEAREN garrantzia

	Eskola-kiroleko eragileei eskaintzen zaien emaitzak lortzeko presioari lotutako giroa
4. ARAZOA	EZ da «haurra» hartzen jardueraren erdigune gisa Kirol hezitzailea aintzat hartzea

Iturria: Geuk sortua.

Eskola-kirolera etorrita, indarkeria-pasarteen azpian eta oinarrian dagoena, azkenean, kirola ulertzeko modua bera dago: kirol lehiakorra vs kirol hezitzailea. Alde batetik, intentsitate apaleko indarkeriaren (irainak) instituzionalizazioa eta permisibitatea, eta, bestetik, zenbait kasutan, eskola mailako lehiaketetan irabazteari ematen zaion garrantzi handiegia dela eta, haurraren papera zentzua galtzera iristen da lehiakortasunaren mesedetan, eta hezkuntzaren kalterako.

Hautemandako arazo orokorretatik abiatuta, elkarrizketetan proposatutako irtenbide orokorrak arazoekin lotzeko saiakera egin zen:

16. taula: KIROL PROFESIONALA 1

1. ARAZOA
- Politika-futbola erlazioa - Zaleen politizazioa - Futbol-kluba = sinbologia
ARAZO HORRETARAKO PROPOSATUTAKO IRTENBIDEAK
- Herritarrak kontzientziaztea, gaur egun, ordena publikoko arazoa dela, eta kirol helburuetatik at dauden helburuak lortzeko asmoz erabiltzen dutela zenbait taldek. - Hemen garrantzia kendu zitzaion noizbait kaleko indarkeriari, eta orain, neurri batean, kirol/futboleko indarkeriari kentzen zaio - Komunikabideak inplikatzeko - Indarkeriaren kontrako kudeaketan kirol-lagunarteak eta zalegoa inplikaraztea (probokazioetan eror ez daitezen eskatzea/sustatzea) - Gizarte-sareetatik (sareko informazioaren kontrola) egiten diren hitzorduen kontrola, aurretik eta ondoren (kirol-esparrutik kanpo) - Ertzaintza-klubaren koordinazioa eta alderantziz: informazioaren transmisioa

Iturria: Geuk sortua.

Indarkeriak ordena publikoko lehen mailako arazo gisa kirolean (estadioen inguruetan, hobeki esanda) hartu duen garrantziaz herritarrak kontzientziaztea, funtsezko eginkizunetako bat jotzen dugu haren existentzia murrizten hasteko. Zenbait talderen aldetik, mota horretako jokabideak helburu politikoekin lotzen direnean, arazo larriak sor daitezke. Tentsio hori baretzeko, oinarritzakoa ikusten da komunikabideen inplikazioa, hala partidaren aurreko egunetan, nola partida ostekoetan. Horretarako, modu «murriztuan edo minorizatuan» argitaratu beharko

dituzte indarkeria-ekintzen inguruko gertakariak eta zabalkunde handia eman, aldiz, gertakari normalei, indarkeria gabekoei.

Ertzaintzaren eta klubaren arteko koordinazioa, gaur egun oso ona dela aitortzen dugun arren, bi norabideetako informazio-transmisioarekin osatu behar da: horrek indarkeria-gertakarien kontrola eta prebentzioa erraztuko du. Horrekin batera, gizarte-sareen bitartez egindako kirol-esparruaren kanpoko partida aurreko eta osteko zaleen hitzorduak kontrolatzen badira, dezente erraztuko da tentsio-momentuak gutxiago izatea.

Kontuan hartzeko soluzio posibleen artean aipatzen da, orobat, kirol-lagunarteak eta zaleak inplikatzeko indarkeriaren aurkako kudeaketan. Horrela, jarrera lasaia sustatuko dira, indarkeriazko portaerak loturik daramatzaten egoerak hobeki kudeatu ahal izateko, betiere, probokazioetatik kanpo mantentzen ikasteko eta besteek aurrera eramandako indarkeriazko ekintzei edo irainei, horien antzeko beste batzuekin ez erantzuteko.

17. taula: KIROL PROFESIONALAK 2

2. ARAZOA
• Tolerantzia-eza (grina) • Futbol-kluba = sinbologia
ARAZO HORRETARAKO PROPOSATUTAKO IRTENBIDEAK
• Tasen egokitzapena: klubak ordaindu behar luke segurtasun-dispositiboaren kostua • Klubetik arazoak ez elikatzea, baina, aldi berean, kluba arazoaren jatorriarekin ez identifikatzea • Zentzu horretan, lagunarteei protagonismoa ez ematea • Kultur hezkuntza didaktikoa eta epe luzekoa lagunarte eta zaleekin • Komunikabideak inplikatzeko zale onak baloratu eta partidetakako giro ona transmiti dezaten (egoera positiboen berri ematea eta normalizatzea)

Iturria: Geuk sortua.

Elkarrizketatu diren agenteek nabarmendu duten beste arazoetako bat klubaren koloreen eta bere sinbologiarekiko grinari lotutako alderdiak dira (kasu batzuetan inolako neurri eta kontrolik gabekoa), sentimendu horiek baitira, zenbait kasutan, indarkeriazko ekintzetan amaitzen diren kontrolik gabeko jokabideetara eramaten dituztenak.

Mota honetako jarrerak kontrolatzen zailak izaten badira ere –askotan, hezkuntzari lotutako jarrera pertsonalak izaten direlako–, portaera kolektiboekin zerikusia duten zenbait irtenbide proposatzen dira, jokabide horiek banakako portaeretan eragin dezaten. Ildo horretan, indarkeria kontrolatzeko zaleek bete dezaketen rol garrantzitsua azpimarratu dute: haiek hezi eta inplikatzeko eta giro ona

sor dezaten sustatzea elementu giltzarritzat hartzen dira, eta horretarako garrantzi handia dute, halaber, komunikabideek eta beroriek egiten duten lana partidaren aurreko eta ondorengo egunetan.

Bestalde, arlo horretan klubek jokatzeko paperari funtsezkoa irizten zaio: sinboloen eta banderen erabilerari buruzko araudia zorrotz bete dadin eskatzea eta «Klubetik arazoak ez elikatzea, baina, aldi berean, kluba arazoaren jatorriarekin ez identifikatzea» funtsezko neurriak jotzen dira. Faktore posible gisa proposatu da, era berean, klubek neurri handiagoan parte hartzea segurtasun-dispositiboaren ordainketan.

18. taula: KIROL PROFESIONALAK 3

3. ARAZOA
• Klubaren epeltasuna erabakiak hartzerakoan • Klubaren inplikazio falta hautemendako arazoaren aurrean
ARAZO HORRETARAKO PROPOSATUTAKO IRITENBIDEAK
• Klubaren aldetik informazio guztia ematea koordinatzaileei • UEFAko arautegia aplikatzea Ligan • Animazioko harmailak kontrolatzea (adibidez, Real Madriden sistema) • Klubeko diziplina-batzordea benetan jardutea • Klubak indarkeria praktikatzeko duen pertsona ezagutzen badu, hura zigortzea, txartela kentzea eta sartzen ez uztea • Erantzukidetasuna (kluba/zaleak/arauak) ekitaldian eta ingurumarietan, partidaren aurretik, bitartean eta ondoren • Gehieneko adina eskatzea animazioko harmailan: adin batetik gorakoei (adib., 26 urte-R. Madrid) sarrerak beste toki batean ematea eta bertaratzen diren pertsonen eta txartela ematen duenaren identifikazioa (biometrikoa) ezartzea • Arauak eta legeak aplikatzeko irizpide berberak eskatzea klub guztien aldetik • Indarkeria praktikatzeko duten identifikazioa eta informazioa ematea koordinatzaileei/Ertzaintzari (formalki edo ez)

Iturria: Geuk sortua.

Adierazitako hirugarren arazoa bigarreneko planteamenduekin lotzen da. Klubei inplikazio handiagoa eskatzen zaie hautematen dituzten indarkeriaren inguruko arazoetan, eta sendotasun handiagoa erabakiak hartzeko orduan.

Ildo horretan, eta aitortzen badugu ere klubak eta segurtasuneko koordinatzaileen arteko harremana ona izaten dela beti, are sakonagoa eta zuzenagoa izan dadin eskatzen da eta, xede horretarako, bide formalak zein informalak erabiltzea.

Orobat, eskatzen da, zorrotz bete dadila araudia (eta arau-irizpide berberak aplikatu ditazatela klub guztiek); eta inplikaturik eta benetan egin dezatela beren lana

klubetako diziiplina-batzordeek, eta, halaber, aplikatu dadila UEFAko arautegia ligako partidetan.

Hala, klubei eskatzen zaie aplikatu ditzatela diziiplina-zigorrak, luzamendurik gabe, indarkeria-portaerekin lotura duten pertsonen aurka, bai eta animazio-harmailetako kontrola ere (sarbide kontrolatua, kontrol biometrikoa barne, animazio-harmailetan adina mugatzea, etab.).

Eta, batez ere, eta funtsean, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren eta kirol-kluben, kirol sozietate-anonimoen eta kirol-federazioen artean, kirolaren arloan indarkeriaren, arrazakeriaren, xenofobiaren eta tolerantzia-ezaren aurka adostutako Lankidetzak Protokoloaren puntuak bete daitezela eskatzen da. (2014ko irailaren 17an sinatutako protokoloa).

19. taula: KIROL PROFESIONALAK 4

4. ARAZOA
• Arazoaren kokalekua • Arazoak desberdinak dira eta soluzio, protokolo eta arduradun desberdinak dituzte, estadio barruan edo kanpoan gertatzen diren; horregatik, zaila da soluzio koordinatuak ezartzea
ARAZO HORRETARAKO PROPOSATUTAKO IRITENBIDEAK
• Etengabeko harremana Ertzaintza/klub/zaleen artean: akordioak eta erantzukizunak hartzea • Berriazko konpromisoak: kluba eta zalegoa (lagunarteak) • Poliziaren presentzia mailakatua (egoera berrietara egokitu daitekeena... polizia gehiegi egonez gero, tentsioa handitu dezake horrek une zailetan) • Partidaren orduak eragina du indarkerian, jokoaren abian den bitartean, behintzat. Egokitu?

Iturria: Geuk sortua.

Adierazi den laugarren arazoa kiroleko indarkeria gertatu den lekuaren arabera aldeen ingurukoa da: arazoak desberdinak izaten baitira (jarduketa-protokoloan, soluzio posiblean, bai eta kudeaketaren arduradunari dagokionez ere) indarkeria estadio barruan edo kanpoan gertatu.

Hemen ere, klubeko segurtasuneko arduradunen eta ordena-indarren arteko – gure kasuan, Ertzaintza – koordinazioak funtsezko garrantzia hartzen du indarkeria murrizteko orduan; baina aipatu dira, era berean, klubak, zaleek eta lagunarteek har ditzaketen konpromiso espezifikoak eta erantzukizunak beren gain hartzeko akordioak ere.

Zaila dela badakigun arren (komunikabideen garrantziagatik), partidaren ordutegia egokitzea proposatzen da aurreikus daitekeen indarkeriazko portaeren

mailaren arabera, eta poliziaren presentzia ere mailakatua izan dadin proposatu da, eta beharretara egokitzea: hasieran murrizta izatea eta premien arabera egokitzea, indarkeria-ekintzak gertatzen badira.

20. taula: KIROL PROFESIONALAK 5

5. ARAZOA
• Arazo zehatzak, hala nola: • Hitzeko indarkeria • Alkohola eta tabakoa
ARAZO HORRETARAKO PROPOSATUTAKO IRTENBIDEAK
• Zaleen hezkuntza: balio/jokabideak transmititzeko kanpainak • Pertsona arau-hausleak identifikatzea, diziplina-espedienteak irekitzea, zigor ekonomiko eredugarriak eta justiziak arindu ezin ditzakeenak ezartzea eta komunikabideek ezarritako zehapenen berri ematea. • Iragarkiak errepikatzea megafoniatik, ledetan, etab.

Iturria: Geuk sortua.

Azkenik, kirolaren inguruko indarkerian ez ezik, kirol-ekitaldiekin zerikusirik ez duten antzeko beste jokabide batzuetan ere eragina duten arazo espezifikoak aipatu dira: alkoholaren eta substantzia sorgarrien kontsumoa. Horretarako, zaleen hezkuntzarekin eta balio eta jokabide egokiak transmititzeko kanpainak abian jartzearekin erlazioa duten irtenbideak proposatu dira. Diziplina-espedienteak irekitzea eta zigor eredugarriak aplikatzea garrantzi handikotzat jotzen da, eta baldin eta komunikabideek azken horien berri ematen badute, uste da are eta eraginkorrago izango direla.

Publizitate-kanpaina zehatzak aurrera eramatea eta beroriek zabaltzea komunikabideetan eta klubeko pantaila eta megafoniaren bitartez, oraindik eraginkorra da parte-hartzaileen iritzian.

OINARRIKO KIROLEKO ETA ESKOLA-KIROLEKO KLiren kasua erabat bestelako fenomeno da eta, izatez, taldeetan parte hartu duten eragileek hautemandako arazoak eta ikusleen aldetik (gehienak gurasoak, eskola-kirolaren kasuan) edota jokalarien artean (eskola-kirolaren kasuan mutikoak eta neskatoak) gertatzen diren indarkeriazko portaerentzat proposatzen diren irtenbide posibleak ere desberdinak dira. Oinarrizko arazoez zuzenean erlazioa dute kirolaren xedearekin, zeina, funtsean, ludikoa baita, eta eskola-kirolaren kasuan, berriz, hezitzailea. Jokalariak adingabeak izateak eta kirolaren izaerak garrantzia kentzen die (edo kendu behar lieke) lehiaketari eta emaitzei, baina, hezitzailea izan behar duela kontuan hartuta «0 tolerantzia» erakutsi behar du indarkeriarekiko, baita intentsitate apalekoa izanda ere.

21. taula: OINARRIKO KIROLA ETA ESKOLA-KIROLA 1

1. ARAZOA
• Indarkeria instituzionalizatzea • Ez da identifikatzen intentsitate apaleko indarkeria
ARAZO HORRETARAKO PROPOSATUTAKO IRTENBIDEAK
• Eskola-kirolak hezitzailea izan behar du • Administrazioak erremintak eman behar dizkie klubei, izan ere, behin klubetik irtendakoan, zigor-egintzak baizik ez baitira geratzen. • Eskola-kirolaren kasuan: ikastetxeko hezkuntza-proiektua (kirol-arlokoa) eskatzea (familia, hezitzaile eta eskola-haurrentzako heziketa-plan espezifikoarekin) dirulaguntzak lortu ahal izateko, eta «koordinatzailearen» irudia indartzea • Partida zehatzetan gerta daitezkeen «indarkeria txikiko» egoerak aztertzea eta denbora-epe laburrean tratatzea haiek errotik mozteko. • Jarduketa-protokolo argiak ezartzea «indarkeria» egoerak gertatzen direnerako

Iturria: Geuk sortua.

Oinarriko kirolean eta eskola-kirolean hautemandako arazo handiena intentsitate apaleko indarkeriaren permisibitatea da, ez baita indarkeria gisa identifikatzen. Azken batean, aurkitzen dugun arazoa da hainbat portaera –irainak edo mehatxuak, kasu- instituzionalizatu eta toleratu egiten direla, hau da, «indarkeria txiki» horiek oharkabean pasatzen direla bai praktikatzen dituztenentzat eta bai ingurukoentzat.

Honen aurrean, oinarriko kirola edo amateurra baldin bada, administrazioak erremintak eman behar dizkie klubei, hauek izan daitezen horrelako portaerak kontrolatzen eta zigortzen dituztenak, izan ere, behin klubaren marra pasatzen badute, zigor-egintza aplikatzea baizik ez baitzaio geratzen administrazioari. Horretarako, beharrezkoa da partida eta egoera zehatz batzuetan gerta daitezkeen – eta «indarkeria txikiak» deitzen zaien– portaera horiek aztertzea, halako jokabideak tratatu eta gertatu direnetik ahalik eta denbora laburrenean konpondu ahal izateko.

Bai oinarriko kirolean eta bai eskola mailakoan, jarduketa-protokoloak ezarri behar dira indarkeria-jarrerak edo -portaerak hautematen diren egoeretarako, nahiz eta indarkeria fisikoa ez izan eta «txikiagotzat» hartu (irainak).

Eskola-kirolaren kasu zehatzera etorruta, eta lehen arazo hau ondoren tratatuko dugun bigarrenarekin loturik, bere azken helburua hezitzailea izatea eskatzen da, eta horretarako komenigarria da ikastetxeek, bai eta kirol-klubek ere, askotan guraso-elkarteen mende egon ohi direnak, ikastetxeko hezkuntza-proiektu bat edukitzea, kirol-arlokoa, non heziketa-plan espezifiko bat aurreikusita egongo den eskola-haur, familia eta entrenatzaile edo monitoreentzat, azkeneko hauek, kasu askotan, heziketa fasean dauden pertsonak izaten baitira. Proiektu horren elaborazioa indartzeko, Aldundiaren dirulaguntzak jaso ahal izateko proiektua beharrezkoa izatea

planteatu da. Ikastetxeko kirol-koordinatzailearen irudia indartzearen ideia ere guztiz beharrezkoa ikusten da.

22. taula: OINARRIKO KIROLA ETA ESKOLA-KIROLA 2

2. ARAZOA
- Jokabide desagokien tolerantzia - Egoeraren normalizazioa kolektibo guztien aldetik (gurasoak, hezitzaileak, ikusleak, etab.)
ARAZO HORRETARAKO PROPOSATUTAKO IRTENBIDEAK
- Inplikaturako eragile guztien erantzukidetasuna. - Gurasoak ez dira eragile bat gehiago, haurren arduradunak dira eta, beraz, nahitaez inplikatu behar dute. - Marketin sozialeko ekintzak, gauzak gertatzen diren espazioei lotutako ekintza-kanpaina (epe erdiko ebaluazio-programa barne dela) (DGTren kanpainen tankerakoa) - Komunikabideen lankidetzak lortzea, azken batean, horiek baitira «kirol-hezkuntza» ematen dutenak eta egoerak normalizatzen dituztenak. Ahalegintzea «jokabide onak» argitaratu eta transmititu ditzaten. - Aldundi eta Udalei eskatzea beren arauen erantzule izan daitezen eta haiek betetzea eska dezaten (adibidez, ingurune komenigarriak beharrezkoak izatea dirulaguntzetara iristeko) «Kirol-klubak» sorkuntza kontrolatzea (adibidez, guraso-elkarteetatik abiatuta), eta kirol/hezkuntza proiektua aurkez dezaten eskatzea udal instalazioak erabili ahal izateko.

Iturria: Geuk sortua.

Elkarriketaturiko eragileek hautemandako bigarren arazoa, lehenengoari estuki lotua dagoena, portaera desagokiekiko dagoen tolerantzia da, eta mota horretako egoerak normalizat hartzea kolektibo guztien aldetik: gurasoak, hezitzaileak, ikusleak, etab., eta horrek eskatzen du sozializatu behar izatea, indarkeria, txikia denean ere, arazo bat dela.

Zentzu horretan, behar-beharrezkoa da eragile guztien erantzukidetasuna, arazoa errotoz moztu ahal izateko; eskola-kirolaren kasuan, gurasoak ez dira kanpoko eragile batzuk; aldiz, parte hartzen duten haurren arduradunak dira eta, horregatik, nahitaezkoa da aita-amak inplikatzeko eta nahastea irtenbideen bilaketan. Bestalde, administrazioak ere parte har dezake eskatzen da, aldundien eta udalen bitartez, erakunde horiei beren arauen erantzule izan daitezen eskatzen baitaie, arau horiek zorrotz betetzea eska dezaten (adibidez, ingurune komenigarriak era ditzatela eskatuz –esate baterako, ez dadila indarkeriazko jarduketarik izan aurreko denboraldietan– dirulaguntzak lortzeko edota udal instalazioak erabiltzeko).

Ildo horretan, administrazioak kirol-hezkuntzaren inguruko eta indarkeria-egoerak normalizatzearen kontrako marketin sozialeko kanpaineekin (DGTren antzekoak) laguntzea eta komunikabideek parte hartzea kanpaina horien zabalkundean, elementu giltzarriak izan daitezke eskola-haurrak jabetu daitezen eta berengana dezaten normala kirol-portaera zuzenak izatea dela, eta indarkeria lekuz kanpo dagoela, hala fisikoa nola hitzezkoa.

23. taula: OINARRIKO KIROLA ETA ESKOLA-KIROLA 3

3. ARAZOA
- Lehiakortasunari ematen zaion garrantzia - IRABAZTEAREN garrantzia - Eskola-kiroleko eragileei eskaintzen zaien emaitzak lortzeko presioari lotutako giroa
ARAZO HORRETARAKO PROPOSATUTAKO IRTENBIDEAK
- Lehiakortasunak kirol-ekitaldi zehatzera mugatu behar du (ekidin lehiaketa luzeak, liga edo kopa tankerakoak, ... eta - Mugikortasun geografikoa arautu behar da, jokatzera urrutira joan behar izatea mugatuz - Kirol-praktika horizontalagoa sustatzea (adingabea babestea kirol-errentagarritasunari lotutako errentagarritasun ekonomikoetatik) - Lehiaketarako adina igotzea - Emaitzen presioaren aurka jardungo duten lehiaketen diseinuarekin erlazionatutako ekintza zehatzak ezartzea - Erregelamenduak egokitzea, adibidez, emaitzei puntuak gehituz, kirol arloan izandako portaera onen saritzat - Federazio mailan, lehiaketako egitura aldatzea. - Hainbat jardunaldi zehatz antolatzea, non ez den baloratuko irabaztea edo galtzea (adibidez, jokalaria nahasiz)

Iturria: Geuk sortua.

Indarkeriazko jarreraren tolerantziaz, permisibitateaz eta normalizazioaz gainera, eskola-kirolean hautemandako beste arazo handi bat partidak irabazteari ematen zaion garrantzia da: emaitzengatik sortzen den presioaren ondoriozko lehiakortasuna eta giro itoa direla medio, zenbait kasutan (ez dira gehiengoak) urduritasuna eta kontrolatu gabeko portaerak azaleratzen dira eta eragin ukaezina izaten dute hala eskola-haur/jokalarien jarreretan, nola ikusle/senitartekoenetan.

Proposatzen diren zenbati irtenbide ekintza zehatz batzuei lotuak daude, hala nola: lehiakortasuna partida zehatz batzuetara mugatzea (denboran luzatzen diren lehiaketak –ad., liga eta kopa– ekidinez, lehiakortasun handiegia ekar dezaketelako), lehiaketako adina igotzea, mugikortasun geografikoa arautzea, partidak jokatzeko urrutira lekualdatzea eragozteko, etab.

Neurri horiez gainera, kirol-praktika horizontalagoa sustatzea ere proposatu da, emaitzen presioa arinduko duten ekintza zehatzak ezartzearen bitartez; baita erregelamenduak egokitu ahal izatea ere, kirol-emaitez soilik zenbatu ez daitezen, baizik eta portaerak ere (kirol-portaerak edo ez) kontuan eduki daitezen partida batean lortutako puntuaren zenbaketa orokorrari begira. Mahairatu den beste ideia bat izan da partidak antolatzea denboraldian zehar, non kirol-taldeek jokalariai partekatuko dituzten.

24. taula: OINARRIKO KIROLA ETA ESKOLA-KIROLA 4

4. ARAZOA
• EZ da «haurra» hartzen jardueraren erdigune gisa • Kirol hezitzailea aintzat hartzea
ARAZO HORRETARAKO PROPOSATUTAKO IRTENBIDEAK
• Inplikaturako eragileen erantzukidetasuna (hezitzaileak, monitoreak, gurasoak, etab.) • Hezkuntza Saila eta Osasun Saila inplikatzeko kirol hezitzailean. • Lehen Hezkuntzako dekretua hedatzea eta kirol hezitzailearen nagusitasuna sustatzea • Ikastetxeen erabakitze eta antolatze ahalmena areagotzea eta, ikastetxeko kirol-proiektuaren bitartez, hainbat lerro markatzeaz gainera, «zerbitzu-karta» bat eskaintzea non «portaera txarreko» senitarteko eta ikusleen aurkako zigorraren berri emango den • Arbitro eta monitoreen (kontuan izanik, kasu askotan, heziketa aldiaren daudela) prestakuntza eta profesionalizazioa (ikastaro espezifikoaren bitartez) • Portaera onak sustatzea (alegia, sariak ematea, zigorraren ordez), bide batez, goimailako kirol-taldeak inplikatzeko direla (adibidez, pasabidea eratzea 1. mailako partida batean)

Iturria: Geuk sortua.

Eskola-kirolean hautemandako arazo guztien azpian ideia bat dago, eta da kirol profesionala imitatzen dela; baina beti gogoan izan behar dugu: eskola-kirola hezitzailea da eta, batez ere, jardueraren erdigunean haurra kokatu behar da.

Berriro azpimarratzen da guraso, monitore, hezitzaile eta abarren erantzukidetasunaren garrantzia kirol-hezkuntzan eta kirolaren bidez ematen den prestakuntzan, eta beste ideia bat nabarmentzen da: kirol-zuzendaritzak eta -zerbitzuak ez ezik, Hezkuntza eta Osasun sailak ere inplikatu behar luketela azkeneko helburuak lortzeko bidean.

Horretarako, dekretua lehen hezkuntzatik bigarrenera hedatzea gomendatzen da eta, horrela, kirol hezitzailearen nagusitasuna sustatzea, lehiaketakoaren gainetik.

Administrazioak erraztasunak eta sostengua eman behar dizkie ikastetxeei, hauek beren erabakitze eta antolatze ahalmena areagotu dezaten, eta ikastetxeko kirol-proiektua prestatzera behartzeaz gainera, «zerbitzu-karta» bat egin dezaten

eskatuko zaie, non «kirol-portaerak ez dituzten» senitarteko eta ikusleen aurkako zigor posibleak iragarriko diren.

Elementu gehigarri gisa, beste hauek ere aipatu dira: monitore eta arbitroak prestatu eta profesionalizatu beharra, kirolaren bidez balioetan hezteko ikastaroen bitartez; pizgarriak sustatzea «portaera onagatik» edo kirol-jokabideak izateagatik (zigorrak ezarri ordez) eta kirol-talde nagusiekiko elkarlana bilatzea, 1. edo 2. mailako taldeekin lankidetzat-hitzarmenak ezarriz eta eskola-haurrei jarduera jakin batean parte hartzeko aukera emanez (adibidez, partidaren batean «pasabidea» eratzerat gonbidatuz).

7. Jardunbide egokiak

Logikoa den bezala, kirolean «indarkeria-ezaren» aldeko «jardunbide egokiak» aipatzen ditugunean, ez gara soluzio unibertsalez ari, baizik eta egoera eta baldintza jakin batzuetan aplikatutako esperientzia zehatzei buruz. Baliteke estrapolagarriak ez izatea eta beste testuinguru batzuetan ez funtzionatzea, baina, oinarri gisa erabili daitezke kirolean indarkeria prebenitzeko politika eta programa espezifikoak sortzeko. Jardunbide egoki asko dago kirolean, eta, bistakoa denez, ez dira berdinak eskola-kirolean, oinarrikoan edo amateurrean eta profesionalean.

Oinarriko kirolean edo amateurrean arreta jartzen badugu –eskola-kirola ere kategoria horretan sar daiteke– ohartuko gara hainbat testuingurutan gehien esploratu den praktika arruntenetako bat prebentzio/heziketa kanpainak izan direla, formatu desberdinetan.

Horien artean, eta guztietara iristeko asmorik gabe, zenbait kanpaina oso interesgarri aurkitu ditugu, hala nola «Juego Limpio, Práctico» (DORADO, 2011), «Deporte sin insultos» (JIMÉNEZ, 2011), «Kirolalde» (Kirolalde, 2011), «Educa deporte» (ORTIZ, 2011), eta abar.

Ildo horretatik irten gabe, hainbat ikastetxe eta kirol-klubetan aplikatutako programak nabarmentzen dira; berorietan, datuak biltzeaz eta egoera aztertzeaz gainera (adibidez, partidetan izandako portaerak behatuz), ekintza zehatzak jartzen dira abian, bai jokalarien eta bai ikusleen jokabideak hobetzeari begira, eta, horretarako, hitzaldi espezifikoak ematen dira guraso elkarlanean, familientzat, eskola-haur/jokalarientzat eta hezitzaileentzat (begirale/entrenatzaileak). Jardunbide horien artean nabarmentzen dira, adibidez, Kirolalderen kanpainak (informazio

bilketa eta ikusleen prestakuntza «Elur-pilota» esperientzia ikastetxe pilotuetan abian jartzearen bidez) edota Arabako Aldundiaren «Fomento de la deportividad y prevención de la violencia en deporte escolar»¹² aplikazioa (SAENZ et al., 2012).

Zentzu horretan, aipatzekoa iruditzen zaigu Consells Esportius de Catalunya erakundearen «Jo sempre guanyo» kanpaina, Generalitat-aren bermearekin eta, aurreko denboraldietako esperientzian oinarriturik, 2017an aurkeztu zena. Berorren bidez, jokalaria, entrenatzaile, guraso eta ikusleen portaerari puntuak ematea sustatzen da, puntuazio horrek partiden emaitzan eragina izango lukeelarik. Era horretan, elkartasunak edo ahaleginak berdinketa bat eragin dezakete, edo markagailua irauli: ez dago arbitrorik baizik eta «joko-tutore» bat eta jokalaria batek min hartu duen aurkari bati laguntzen badio, puntuak batzen ditu, eta, aldiz, zaleek irainak jaurtitzen badituzte, puntuak galduko ditu taldeak. Programa horretan «balioen komite» bat ere izendatzen da, zeinak bitartekari papera ere joka dezakeen, talde bateko eta besteko gurasoen artean, horretarako premia balego.

Hainbat erakundek aurrera eraman dituzten beste jardunbide batzuen artean aipatzekoak dira: Bizkaiko Aldundiak eta Kirolalde (kasu honetan esperientzia pilotu gisa) guraso, jokalaria eta klubentzat gauzatutako «Jokabide-kontratuak»; kirolari eta ikusleentzako portaera-dekalogoaren elaborazioa¹³ (Kirolalde, Bizkaiko Aldundia, etab.); partidaren hasieran eta amaieran jokalariek elkar agurtzeko obligazioa; ikusleen artean, jardunbide egokiak inprimaturik dituzten *Txartelak* banatzea (Arabako Aldundia), etab.

Ekintza berritzaile deigarria eta eraginkorra iruditu zaigu Gipuzkoako Aldundiak aurrera eramandako «*Eee!ntzun*» kanpaina; berorretan, eskola-kiroleko partida bakoitzaren aurretik *haka* bat egitea proposatzen da, mutiko eta neskatok kirolaren benetako balioekin gozatzeko duten eskubidea aldarrikatzeko¹⁴.

Portaera egokien berri ematea xede duen beste jarduera garrantzitsu bat etsenplu positiboak argitaratzea eta zabaltzea da, erakundeek aitzinatutako kanpainen bitartez; horien artean, Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzak prestatu eta komunikabideen bitartez zabaldutako iragarkiak nabarmentzen dira, edota eskola-haurrekin eta gurasoekin hainbat jardueratan erabiltzeko xedearekin ikastetxeetara

¹² http://www.araba.eus/cs/Satellite?c=Page&cid=1224018502073&language=eu_ES&pagename=DiputacionAlava%2FPage%2FDPA_contenidoFinal

¹³ Hemen aurki daiteke kirolarien Dekalogoak: http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-kirolald/eu/contenidos/informacion/kirolalde/eu_kirolald/dekalogoak_kirolariak.html, eta hemen ikusleena: http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-kirolald/eu/contenidos/informacion/kirolalde/eu_kirolald/dekalogoak_ikusleak.html

¹⁴ <http://www.gipuzkoakirolak.eus/eu/eee-ntzun>

zuzenean bidalitako bideo hezitzaileen bidezko dibulgazio-kanpainak, adibidez, Kirolaldek aurrera eraman zuena EHUKo Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatearekin elkarlanean¹⁵.

Beste zenbait argitalpen ere aurkitu ditugu arazoari buruzko gogoeta egiten laguntzen dutenak, hala nola *Lo mejor del Fútbol* liburua, azpтитulu guztiz iradokitzailea daramana: *solidaridad, valentía, fidelidad, honradez, compañerismo, ... Historias ejemplares de tu deporte favorito que te gustará conocer* duela gutxi Jon AGIRIANOk argitaratua (2018).

Garrantzi handikoa da, era berean, eta hala izan behar du, kirolaren inguruko indarkeriaren arazoa aitortzea eta salatzea, bai eta komunikabideek parte hartzea ere jardunbide egokien zabalkundean; aipatutako horren ildotik, esan behar da idatzizko zenbait hedabidek gai horri buruzko berariazko atalak dituztela, problematika azaleratzen dutenak, eta horrek proposamen praktikoak egitera bultzatzen du, konponbide posibleen bilaketan.¹⁶

Baina ez dira tankera horretako heziketa- eta dibulgazio-ekintzak arlo honetan aurrera eramaten diren jardunbide egoki bakarrak; badira zigor izaerako beste ekintza batzuk ere, hala nola Bizkaiko Aldundiak gauzatu duen kanpaina, zeina kirol-eskolako jokabide negatiboei «Txartel Beltza»¹⁷ deitua ateratzean oinarritu baita. Zenbait erakundeek beste ekintza batzuk ere gauzatu dituzte, adibidez, dirulaguntza publikoetarako sarbidea murriztea indarkeriazko ekintzak kontrolatzen ez dituzten ikastetxe edo klubei, edota aurreko denboraldian zehapenak jaso dituztenei.

Mota horretako ekintzen eraginkortasuna frogatzen duen adibide bat 13-14 denboraldian ezarritako «Txartel Beltza» da, eskola-kirolean hezkuntzakoa ez den beste edozein egoeratan aplikatzen dena eta, futboleko, zehazki, aplikatu denean, indarkeriazko portaera erdira murriztea lortu duena. Txartel hori, lehenengo aldiz erakusten denean, informazio-emailea da, baina bigarrenetan jarduera bertan behera uzten da, eta lehiaketa-batzordeak dagokion kirol-zehapena ezartzen du. Eskola-kirolari aplikatzen zaion ekimen honetan lurraldeetako federazioek, ikastetxeek,

¹⁵Esteka honen bitartez, Euskadiko ikastetxe guztietara bidalitako bideoetara sar daiteke: http://www.euskadi.eus/web01-a2kirola/eu/contenidos/informacion/kirolalde/eu_kirolald/zerda.html

¹⁶Zentzu horretan, *El Periódico* egunkariaren online-ko bertsioan atal espezifiko guztiz interesgarria dute:

¹⁷http://www.bizkaia.eus/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=8356&idioma=EU&dpto_biz=4&codpath_biz=4%7C291%7C2050%7C2051%7C8139%7C8356

guraso-elkarteek eta kirol-klubek hartzen dute parte eta bere helburua Bizkaiko eskola-haurren artean kirol-ohiturak txertatzea da¹⁸.

Bestalde, urriak diren arren, badira post facto aplikatzen diren zenbait kanpaina ere. Jarduera horien xedea eta jardunbidea da indarkeriazko jokabideetan parte hartu edo nahasi diren jokalaria/kirolariak eta klubak birgaitzera bideratuta dago. Horien artean dago «Oinarriko kiroletako krisialdietan esku hartzea» (GUTIÉRREZ, 2011).

8. Gomendioak

Aurrez aipatu dugun bezala, egoera jakin batzuetan eta zenbait testuingurutan gauzatu izan diren jardunbide egokiak ez dira beti errealitate berri batean zuzenean aplikatzeko modukoak izaten; hala ere, erabilgarriak izan daitezke programa edo politika espezifiko batzuk sortzeko oinarri izango diren gomendio posible batzuk ezartzeari begira, egoera zehatzaren alde aurretik diagnostiko on bat egitea beharrezkoa izango bada ere.

Herriarrei zuzendutako sentsibilizazio-programak eta inplikaturako eragileen (jokalaria, entrenatzaileak, arbitroak eta ikusleak) prestakuntzarako programak baliagarriak izan dira errotzea lortu denean; horregatik, ezin dira jarduera bakan batzuetara mugatu, aldiz, denboran iraunkor eta jasangarri izan behar dute, baita ekonomikoki ere.

Denbora epe jakin baterako programatu behar dira, eta, ezartzen diren garaian eta, batez ere, ezarri ostean, ebaluatzeko aukera eman behar dute, momentuko beharrianetara egokitzeko. Ebaluazio horretan, komenigarria da inplikaturako eragileek parte hartzea, hain zuzen ere, inplikazio hori areagotzearen.

Aurrez adierazi dugun bezala, komenigarria da programa horiek jarraipena izatea, bai administratibotik eta bai klubetatik (edo ikastetxeetatik, eskola-kirolaren kasuan) aplikatzeko modukoak izatea, eta komunikabideen sostengua lortzea, azken hauek herriarrengan duten eragin handiagatik.

¹⁸ Hemen ikus daitezke kanpaina honen lehen edizioko emaitzak: http://www.bizkaia.eus/Kultura/Kirolak/Kirolbide_bizkaia/publikoa/visor_noticias_detalle.asp?Tem_Codigo=&Id=13190&idioma=EU

Programak etengabe eta modu iraungarrian aplikatu behar horrek etenik gabeko segimendu- eta ebaluazio-sistema bat eskatzen du, zeinak ahalbidetuko duen kiroleko indarkeriaren aurkako politikak orientatzea. Organismo instituzionalei dagokie –Kirolalde (Kiroleko Indarkeriaren Aurkako Batzordea)– politika horien lidergoa, batzorde horretan, Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritza ez ezik –bera da batzordeburu– aldundiak, federazioak, Segurtasun Saila, Joko eta Ikuskizun Saila, unibertsitatea eta abar biltzen baitira.

Horrez gainera, esperientziak eta ikaskuntzak partekatzeak espazioak sortzen badira (*Bottom up* foroak), indarkeriaren kontrako borroka-ekintzak ahalbidetzen dituztenak, errazagoa izan daiteke hainbat sektore inplikatzeko eta programak eta emaitzak bateratzea proposamen berriak sortzeko eta errealitate eta egoera berriei buruzko ezagutza handiagoa metatzeko.

Fenomenoarekin zerikusia duten eragileak inplikarazten dituzten ekintza parte-hartzaile horiek guztiek ez dute eragozten denboran eta forman aurreikusitako zehapenak aplikatzea beharrezkoa izatea; horri lotuta, ezinbestekoa da indarkeriazko portaerei buruzko «0» tolerantziako politika, kirolarekin zerikusia duten esparru guztietan (eskola-kirola, oinarrikoa/amateurra eta profesionala).

Logikoa denez, «0» tolerantziako politika horrek ez du bereizkuntza gabea izan behar, aitzitik, aurrez ezarritako ildo argietan oinarritu behar du. Prebentzio-ekintzak ere beharrezkoak izango dira, baita salaketa-, kontrol- eta aplikazio-bitartekoak ere, aldezturik ezarritako plan baten arabera.

19/2007 Legeak eta 203/2010 Errege Dekretuak (Kiroleko indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta tolerantzia-eza prebenitzeko Erregelamendua) xedatzen dute indarkeria-ekintzak, hala fisikoak nola hitzezkoak, galarazita egon ez ezik, zigorgarriak direla; izatez, azken denboraldiotan, aldaketak gertatu dira KLIren arloan: murriztu egin da eta erraztasunak eman dira klubek indarkeria praktikatzeko duten taldeak babestu ez ditzaten eta, era horretan, gutxitu egin dira estadioetako indarkeria-ekintzak.

Aipatutako legeak, halaber, bai Liga eta bai klubak erantzukidetasun ariketa batean inplika daitezen bultzatu du, eragile batzuen eta besteen arteko lankidetzak handitu delarik, batez ere, klubak eta segurtasun-indarren artekoa, klubeko segurtasun-zuzendariaren eta polizia-ko koordinatzaileen irudiak barne direla; lagunartean erregistro-liburuak, bestalde, berorietako kideak indarkeria-ekintzekin lotzea eragotzi du, etab.

Esandako legea zorrotz aplikatzea da berme handienetako bat KLI mugatzeko eta, ahal bada, erroztik erauzteko.

Horrez gainera, teknologia ere lagungarria da KLI gutxitzeko, segurtasun-zereginak errazten baititu kameren erabilerari esker. Estadioetara sartzeko erabiltzen den kontrol biometrikoak, adibidez, bai barruan gertatzen diren ekintzak eta, batez ere, haiek pizten dituzten pertsonak hobeto kontrolatzea ahalbidetzen du. Bide ematen du, halaber, animazioko harmailak zorrotz kontrolatzeko, sarbide-txartelak trukatzeko eta han egotea ez dagokien pertsonak sartzeko eragozten baitu.

Berriro ere, klubak, zaleen eta segurtasun-indarren erantzukidetasun ariketak, legearen eta klubetako eta ekitaldi zehatzetako araudi espezifikoaren aplikazioak eta inplikaturako eragileek lege eta araudi horien ezagutza izateak (esandako araudiak ikusleei, zaleei eta bazkideei bidaltzearen eta ezagutaraztearen bidez) mugatuko dute KLI.

9. Bibliografia-erreferentziak

- AGIRIANO, J. (2018). *Lo mejor del fútbol*. Bilbo: Arg. A fin de cuentos
- ALDAZ, J. (2009). «Una reflexión crítica en torno al espectáculo deportivo». *MUGAK*. 48, 15-16
- ALDAZ, J. (2011). «Los hábitos deportivos como hábitos líquidos». *Inguruak*. (48), 85-95.
- ALDAZ, J. et al. (2017). «Mega-eventos deportivos y terrorismo. Un reto criminológico complejo». *Revista Española de Educación Física y Deportes*, 418 (Gehig.), 160-168
- ALKIN, M. C. (2011). *Evaluation Essentials. From A to Z*. New York (AEB): Guilford.
- BRANTINGHAM, P. J. eta BRANTINGHAM, P.L. (1991). *Environmental Criminology (reissue)*. Prospect Heights: Waveland Press.
- BRANTINGHAM, P. J. eta BRANTINGHAM, P.L. (2008). Crime pattern theory. In WORTLEY, R. eta MAZEROLLE, L. (Arg.), *Environmental Criminology and Crime Analysis* (78-93 or.). Devon (UK): Willan Publising.
- BROHM, J-M., eta PERELMAN, M. (2018). *El fútbol, una peste emocional*. Madril: A. Machado Libros.
- COAKLEY, J. (2017). *Sports in Society. Issues and Controversies*. New York: McGraw Hill.
- COALTER, F. (2007). *A wider social role for sport. Who's keeping the score?*. New York: Routledge.
- DORADO, J. (2011): Programa Juego Limpio, práctico, en II Seminario Nacional de deportividad: «Juguemos limpio en el deporte base», Vitoria-Gasteiz.

EUSKO JAURLARITZAREN PROSPEKZIO SOZIOLOGIKOEN KABINETEA (2011). http://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/o_11tef5_deporte/eu_11tef51/a_djuntos/11tef5_deporte_eu.pdf

GÓMEZ, Á. (2007). «La violencia en el deporte. Un análisis desde la Psicología Social», *Revista Psicología Social*, 2015, 22. bol.(1), 63-87 or.

GUTIERREZ, H. (2011): Prevención terciaria de la violencia en el deporte base: «intervención en crisis» y formación de técnicos especialistas en Aragón, en II Seminario Nacional de deportividad: «Juguemos limpio en el deporte base», Vitoria-Gasteiz.

GUIJT, I. eta GAVENTA, J. (1998). *Participatory Monitoring and Evaluation: Learning from Change*. IDS Policy Briefing. Brighton, UK, University of Sussex.
<http://www.ids.ac.uk/files/dmfile/PB12.pdf>

HERNÁNDEZ MENDO, A., MOLINA MACÍAS, M., eta MAÍZ RODRÍGUEZ, F. (2003): «Violencia y deporte: Revisión conceptual», *eduPsykhé*, 2003, 2. bol. (2), 183 -220

ISPIZUA, M. (2014): «Análisis de la terminología violenta y/o sexista en las noticias deportivas en prensa escrita», in AE/IC: «*Espacios de Comunicación*», AE/IC arg., 1036-1046 or.

ISPIZUA, M. eta CAMPELO, P. (2014): «Interpretación reflexiva de la violencia en el deporte» in LLOPIS, R. et. al *Crisis, Cambio Social y deporte*, Nau Llibres, Valentzia, 629-639 or.

ISPIZUA, M. (2013): [Kirolalde memoria](#): Elaboración de un decálogo de buenas prácticas para los MCM a partir de la realización de un estudio DELPHI a personas vinculadas al mundo del deporte.

ISPIZUA, M. (2012): [Kirolalde memoria](#): Evaluación de la campaña escolar de prevención de la violencia en el deporte y del estudio de la violencia en la prensa escrita.

ISPIZUA, M. (2012): [Kirolalde memoria](#): Estudio y prevención de la violencia en el deporte escolar en Euskadi.

ISPIZUA, M. (2011): [Kirolalde memoria](#): Prevención de la violencia en el deporte: Los Medios de comunicación y su relación con la violencia en el deporte.

ISPIZUA, M. (2011): «El programa Kirolalde» en II Seminario Nacional de deportividad: «Juguemos limpio en el deporte base», 68-88.

JIMÉNEZ, A. (2011): «Programa deporte sin insultos» en II Seminario Nacional Fomento de la Deportividad y Prevención de la Violencia en el Deporte en Edad Escolar Vitoria-Gasteiz, Espainia, martxoak 24-26.

MARSH, P., ROSSER, E., eta HARRÉ, R. (1978). *The Rules of Disorder*. Londres: Routledge and Kegan Paul.

MATTHEWS, C.R. (2017). «Understanding Sports Violence: Revisiting Foundational Explorations». *Sport in Society. Cultures, Commerce, Media, Politics*, 20 (7), 751-767

MESSNER, M. (1990). When bodies are weapons: Masculinity and violence in sport. *International Review for the Sociology of Sport*, 25(3), 203-219.

MIRACLE, A. W., eta ROGER, C. (1994). *Lessons from the Locker Room. The Myth of School Sports*. New York: Prometheus Books.

OME (2002). Indarkeriari eta osasunari buruzko mundu mailako txostena. LABURPENA. Hemendik aterata:
http://www.who.int/violence_injury_prevention/violence/world_report/es/summary_es.pdf.

ORTIZ, P. (2011). Programa Educa deporte, en II Seminario Nacional de deportividad: «Juguemos limpio en el deporte base», Vitoria-Gasteiz

PATTON, M.Q (2008). *Utilization-Focused Evaluation. 4th Edition*. Thousan Oaks (California): Sage Publications.

PRESKILL H, eta CATSAMBAS T. T. (2006). *Reframing Evaluation through Appreciative Inquiry*. Thousand Oaks, California. Sage Publications

PRESKILL, H. eta TORRES, R.T. (1999). *Evaluative Inquiry for Learning in Organizations*. Thousand Oaks, CA: Sage

RÍOS, J.M. (2015). «Palabra de fútbol» y Derecho Penal. Madril: Reus argitaletxea.

RÍOS, J.M. (2014). *Violencia, deporte y Derecho Penal*. Madril: Reus argitaletxea.

SAENZ, A., GUTIERREZ, H., GIMENO, F. eta ELEJALDE, A. (2012). «Prevención de la agresividad y la violencia en el deporte en edad escolar: Un estudio de revisión». *Cuadernos de Psicología del deporte*, 12 (2), 57-72

STAKE, R.E (2004). *Standard -Based& Responsive Evaluation*. Thousan Oaks (California): Sage Publications.

SUMMERS, L. (2009). Las técnicas de prevención situacional del delito aplicadas a la delincuencia juvenil. *REVISTA DE DERECHO PENAL Y CRIMINOLOGÍA*, 3(1), 395-409.

YOUNG, K. (2012). *Sport, Violence and Society*. New York: Routledge.

